

## Juan Garzia Garmendia:

**“Testua bazterrik gabeko  
itsasoa da eta, hortaz, ezin  
da dena arautu”**



Juan Garzia Garmendia irakaslea, itzultzailea eta idazlea da. Ez dugu uste, bada, inor harrituko zaigunik, esaten badugu euskara idatziari buruz mintzatu garela berarekin elkarrizketa honetan. Inor mintzeko asmorik erakutsi gabe, Irunen hazitako legazpiarra gogor azaldu da testuetara zabarkeria daramatenen aurka. Izan ere, bere ustez, testua bazterrik gabeko itsasoa izateak ez du zertan ekarri idatzitakoarekiko arduragabekeria. Ez dirudi, dena den, ideia hau zeharo erroturik dagoenik gure artean. Sarri, euskaraz egitea erdipurdikeriari atek zabaltzeko aitzakia bihurtzen da. Juan Garziaren iritziz, neke handiak hartu izan dira gurean euskararen ezagutza bultzatzeko, baina hizkuntza ondo erabiltzearen kontuan ez da hainbesteko ardurarik ikusten.

10. or.



## Teknologia berriak itzulpengintzan: itzulpen-memoriak

Ez hain aspaldi, itzultzailearen lagun bakarrak hiztegia eta –kasurik onenean– idazmakina ziren, ia-ia Erdi Aroan gertatzen zen bezala. Geroztik, gauzak errotik aldatu dira. Baditugu ordenadoreak, gero eta azkarragoak, eta baita orain dela gutxi ezin asma zitezkeen tresna informatikoak ere. Tresna horietako bat itzulpen-memoria da. Sistema horrek aukera ematen dio itzultzaileari egindako lanak memoria batean gordetzeko, eta horrela, beste testu bat itzuli behar duenean begiratu dezake ea testu hori edo zatiren bat memorian jasota dagoen, berriro ere itzuli behar ez izateko. Itzulpen-memoriak nola funtzionatzen duen, nola erabiltzen den, zer-nolako baliabideak dituen eta informazio jakingarri gehiago barruko orrialdeetan aurkituko duzu.

13. or.

## Eztabaida: Nolakoa izan behar du Historiaren irakaskuntzak Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan?

Hiru urte dira Hezkuntzako ministroak Humanitateen Erreformatarako Proiektua aurkeztu zuela Espainiako Kongresuan. Proiektu hori atzera bota zuten diputatuek ustekabean, eta ondorioz, batzorde bat sortu zen gaia bideratzeko. Batzordeak bere iritzia eman aurretik, eta seguruenik iritzi horren nondik-norakoaren susmoa hartuta, Historiaren Akademiak txosten bat kaleratu zuen, eta horrekin batera, eztabaidak piztu, batez ere historiaren irakaskuntzari dagokionez. Humanitateen Erreforma laster eztabaidatuko da berriro Kongresuan. Hori dela-eta, historiako lau irakaslerengana jo dugu, gaiari buruz duten iritzia eza-utzeko.

20. or.

6

### IKERLAN:

lantegiak  
euskalduntzeko  
saio baten berri

22

### Giza baliabideak:

zenbait aholku,  
ikasten hasi behar  
duenarentzat

23

Lanean Euskaraz  
aritzeko internete-  
ko helbide interes-  
garri batzuk

EZ DUT NEURE BURUA AURKITZEN

ONDO DA. UTZIDAZU ORAIN DELA  
GUTXI EGINDAKO ZURE ARGAZKI BAT,  
ETA ESADAZU NOLA ZEUNDEN  
JANTZITA GALDU ZINENEAN. LASAI,  
AGERTUZ GERO, DEITUKO DIZUGU.





PAPER  
BIRZIKLATUA

**Zuzendaritza:**  
Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea (IVAP)

**Koordinatzailea:**  
Joseba Lozano

**Diseinua, fotokonposaketa eta inprimaketa:** Itxaropena S.A.

**Marratzkiak:** Concetta Probanza

**Zenbaki honetako lankideak:**  
Jon Agirre, Garikoitz Berasaluze, Begoña Bilbao, Miguel Bilbao, Lutxo Egia, Luis Elizondo, Xabier Elortza, Idurre Eskisabel, Edorta España, Jakes Goikoetxea, Aitor Gorostiza, Enrique Gorrotxategi, Maite Imaz, Joseba Lozano, Luma, Francisco Luna, M<sup>a</sup> Paz Martinez, Nerea Pikabea, Gloria Rey, Josu Uribe.

ADMINISTRAZIOA EUSKARAZ aldizkarian argiratutako artikulua berridatz daitezke, bai osorik, bai zatika, baina artikulua nondik ateratu diren aipatu behar da beti.

ADMINISTRAZIOA EUSKARAZ aldizkariak ez ditu derrigorrez bere egiten artikulua eta kolaborazioetan agertzen diren irizkiak.

ADMINISTRAZIOA  
EUSKARAZ

ISSN: 1576-5563. **Legeko Gordailua:** BI-1141-93. **Egilea:** Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea Donostia-San Sebastián 1. 01010 VITORIA-GASTEIZ. Tel. 945 01 76 00. /<http://www.ivap.org>

PERTSONAIA

## Martin Berasategi: “Euskal sukaldari batek bere sukaldaritzaren alde gogor lan egin behar du”



**Ama eta izebaren magalean, Donostiako Alde Zaharreko Bodegón Alejandro jatetxean eman zituen lehenengo urratsak sukaldaritzan. Begirada lotsati eta umileko gizon honek munduko sukaldari onenariokekin lan egiteko aukera izan du. Hainbat sari ere jaso ditu eta orain, 40 urterekin, bost jatetxe zuzentzen ditu, beste hiru lagunekin batera. Sukaldeko lurrin eta ke gozoen artean aritu ginen solasean Lasarte-Orian duen jatetxean.**

Zenbait urtetan han eta hemen ikusi eta ikasitakoak eman du fruitua: Lasarte-Oriako jatetxea, Oreretako Mugaritz, Bodegón Alejandro bera, Kursaal eta Guggenheimekoak... MARTIN BERASATEGI TALDEA azken finean.

Bai. David de Jorge, Andoni Luis Alvarez, Bixente Arrieta eta ni gaude taldean. Hauek bazkideak baino gehiago lagunak dira. Jende jatorra eta langilea da. Egia esan, ez nuen sekula pentsatuko maila honetako jatetxe bat sortzera iritsiko nintzenik. Laguntza handia jaso dut alde guztietatik. Izugarritzko zortea izan dudala uste dut.

**Ama eta izeba izan ziren zure lehen maisuak Bodegón Alejandroko sukaldean. Lapiko artean bizitzeko grina betidanikoa al da?**

Bai, oso argi izan dut beti. Amarekin borroka egin behar izan nuen, nik ikasten jarraitzea nahi baitzuen berak. Hamalau urterekin hasi nintzen jatetxean. Sukaldaritzan tradizionala bertan ikasi nuen. Gogoan dut oraindik amarekin erosketak egitera Bretxara joaten nintzenekoa.

**Zure burugogorkeriak Ipar Euskal Herrian eta Frantzia hainbat sukaldari, gozogile eta urdaigilerekin ikastera eramantzen zintuen...**

Frantziako *Issengeaux* Gozogintza Eskola Modernoan egon nintzen ikasten. Han munduko gozogile onenak ezagutzeko parada izan nuen. Maisu asko izan ditut, baina batzuk aipatzearen Uztaritzeko François Bouchican urdaigilea eta Baionako Jean Paul Heineard gozogilea.

**Ikasi bakarrik ez, erakutsi ere egiten duzu...**

Martin asko egotea eta etorkizunean Euskal Herrian egon den sukaldaririk onenak izatea nahi nuke. Herrialde askotako ikasleak ditut: euskaldunak, frantsesak, japoniarrak... Mila inguru ikasle izango ditut dagoeneko. Kanpotik hainbat eskaintza izan ditudan arren, hemen jaioa naiz eta hemen bizi nahi

dit. Euskal sukaldari batek bere sukaldaritzaren alde gogor lan egin behar du.

**Baserritarrak, arrantzaleak, perretxiko-biltzaileak... Sukaldarien arrakastaren parte omen dira.**

Izkutuko lana, lanik zailena egiten dute eta guztion txaloak eta babesa merezi. Sukaldariontzat ez da gauza bera lehengaiak baserritar bati erostea edo supermerkatuan. Antzeman egiten da hori kalitatean.

**Plater berri bat sortutakoan nori eskatzen dio iritzia Martinek?**

Nire emazteari, nire ingurukoei, edonori azken finean. Baita platerak garbitzen dituenari ere sarritan. Hala ere, norbera da gehienetan erabakitzen duena. Sukaldean prestatzen dudana guztia probatzen dut. Norberak ez badaki zer ematen ari den, jaki hori ezin daiteke ona izan. Horrelakorik ez nioke barkatuko neure buruari.

**Horrenbeste ordu han eta hemen ibili ondoren, etxeko sukalderako tarterik hartzen al duzu?**

Jaiegun guztietan nik neuk prestatzen dut otordua. Lotsa emango lidake nire emaztea sukaldean eta ni eserita egoteak.

**Gault Millau Gidan puntuaziorik altuena, Michelin Gidako bi izar, Urrezko Sardexka... Hori gutxi balitz, Estatuko 100 jatetxe onenen artean daude denak. Sari potoloak dira hauek...**

Jaso dudana handiena *Proiektzio handieneko sukaldaria* saria izan da. Baina horiek sari profesionalak dira. Euskal herritarren esker ona garrantzitsuagoa da niretzat.

**Proiekturen batek loa kentzen al dizu azken aldian?**

Ez dut momentuz proiektu zehatzik. Aukerak sortzen direnean aprobetxatu egiten ditut, besterik gabe. Oso zorrotza naiz neure buruarekin eta nire erroka nagusia egunez egun hobeto lan egitea da.

**Nerea Pikabea**  
Kazetaria

## Harralde

Hitz hau normal-normala da Getarian eta Zumaian. *Ogia* edo *ura* bezain normala ez bada, bai behintzat *mahasti* edo *zaldi* hainbestekoa.

Ez da geografia ondo-ondo ezagutu beharrik, orain azalduko ditudan lekuak kopeta barruko pantailan ikusteko. Getariatik Zarautzera kamioz hasi eta ezkerrean, behean, hondartza dago, plaia, *Malkorbe* du izena. Ondoren haitzak eta harriak, harriak eta haitzak, *harraldea*, hots, harri aldea, Zarautzeraino. Zarautzen hondartza ederra, hori badute-eta zarautzarrek. Lekeitio eta Ondarroa bitartean be gauza bera: *Isuntza*, hondartza, *Karraspio*, hondartza; eta ondoren hatxak eta harriak, harriak eta hatxak, *harraldea*, ia dena segidan. Eta Hondarribia eta Donostia bitartean, eta Zierbena eta Pobeña bitartean ere antzeko-*parezido*.

Itsasalde edo kostan hondartza eta harraldea, harraldea eta hondartza, ia besterik ez dago. Barrak ere badira ibaiak itsasoratzen diren aldeetan, Oriokoa-eta esate baterako. Hamaikatxo barko txikitu dira haitzetan, arroketan edo harraldean itsaso txarrak hara eramanda. Hiztegi berrietan *hondartzak* badu sarre-ra; *barrak* ere bai. *Harraldek* ez. Zer dela eta ez ba? Erabiltzen duguna ez jasotzea ere...!

**Kaxildo Alkorta**  
Gasteiz

## Emakumeak gobernuz kanpoko erakundeetan

*Administrazioa euskaraz* aldizkariko apirileko alea irakurtzen aritu naizela, gauza batek harritu nau: *Solidarioak al gara euskaldunok?* izenburuko eztabaidan elkarrizketatu dituzuen guztiak gizonezkoak dira. Gobernuzko kanpoko erakundeetan ari direnen gehiengo emakumeak direla kontuan hartuta, ego-kiagoa izango zen, nire ustez, emakume batzuk –edo baten bat behintzat– elkarrizketatzea.

**Begoña Muruaga**  
Gasteiz

## JOXERRA INTERÍNEZ

BEHIN BEHINEKO FUNTZIONARIOA

[www.go.to/interinez](http://www.go.to/interinez)



**Gutunak makinaz idatzi eta, gehienez ere, 15 lerro izango dituzte. Gutunarekin batera, nahitaez, igorlearen izen-abizenak eta NANA adierazi behar dira. Jasotako gutunak ez dira itzuliko. Toki-arazorik izanez gero, ADMINISTRAZIOA EUSKARAZ aldizkariak eskubide osoa izango du gutunak laburtuta argitaratzeko. Halaber, ADMINISTRAZIOA EUSKARAZ aldizkariak bere erantzuna eman ahalko du sail honetan bertan.**

# INTERNET: HERRITARREN ETA ADMINISTRAZIOAREN ARTEKO GUNE IREKIA

Sareen sareak (Internetek) iraultza ikaragarri azkarra eta handia ekarri du informatikaren eta komunikazioen mundura. Iain konturatu gabe, gure gizartearen eremu asko eta askotara zabaldu da: merkataritza-harremanetatik hasi eta pertsonen arteko solasaldi hutsetara (txat). Bestalde, interneten ezarretak teknologiaren berrikuntza eragin du, eta aldi berean, informazio eta datuen joan-etorri itzela, mugarik izango ez balitz bezala. Sarearen bidez lor daitekeen informazioa, honenbestez, gorantz doa egunez egun, ia esponentzialki hazteraino.

Herri-administrazioak, internet sortu zenetik bertatik, konturatu ziren sareak hainbeste zerbitzu eskaini ahal izango zizkiela herritarrei administrazioarekiko harremanetan. Eta ohartu ere egin ziren sarearekin, informatikarekin eta telekomunikazioekin zerikusia zuten teknologiak garatzen laguntzeko ekonomiaren hazkuntza eta garapen ikaragarria ekarriko zuela. Al Gorek, Estatu Batuetako lehendakariorde denak, 1994an plan bat aurkeztu zuen Estatu Batuetako datuen azpiegitura nazionala abian jartzeko ([www.whitehouse.gov](http://www.whitehouse.gov)). Planak, besteak beste, honako ekintza hauek jaso zituen: administrazioaren informazioa errazago iristeko bideak hobetzea, herri-administrazioen informazioa banatzeko azpiegiturak sortzea eta herritarrek administrazioen informazioa iristeko duten bidea garatea.

Euskadin, horrelako zenbait plan jarri dira abian, hala nola, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Plana, 2001-2004 aldirakoa, Eusko Jaurlaritzak landua (ikus [www.euskadi.net](http://www.euskadi.net)); planak, besteak beste, telekomunikazioetako eta informazio-teknologiako azpiegiturak sortu nahi ditu, azpiegiturok aukera emango baitute ezagutzaren gizarterantz joateko. Beste plan horietako bat, *Euskadi 2000Hiru* (ikus [www.euskadi.net](http://www.euskadi.net)) da; horren bidez, 16.000 milioi pezeta erabiliko dira, internet azkarrago ezar dadin euskal gizartearen.

Azkenik, eta informazio-teknologia hauek garatzeak duen garrantzia azpimarratzeko, ezinbestekoa da Europako Batasunaren ekimenak aipatzea, eta batez ere *eEurope* proiektua, bera baita Europako era horretako proiektuen buru (ikus [www.ispo.cec.be](http://www.ispo.cec.be)).

## Lan-eskaintza publikoa (LEP), adibide zehatza

2000ko lan-eskaintza publikoaren oinarriak EHAA-n argitaratu ziren egun berean, abian jarri zen [ej-gv.net](http://ej-gv.net) ataria, hau da, 2000ko LEParen web-orria.

Ikuspuntu orokorrenetik begiratuta, [ej-gv.net](http://ej-gv.net) guneak bide egokia izan nahi du herritarrek zuzen-zuzenean irits daitezten Euskadiko administrazioaren zerbitzuetara. Helburua, hortaz, bikoitza da: batetik, informazioa heltzeko bideak erraztea, herritarra aise eta erraz irits dadin; eta, bestetik, administrazioarekiko harreman-bidea izatea (dokumentazioa eskatu, eskabideak egin, espediente bat zertan den jakin...). HAEEK, honenbestez, gogo horrekin prestatu du web orria.

Web orri honek berrikuntza ekarri du. Beste webgune askotan ez bezala, hemen interesatuak zuzeneko bidea du informazio-emailearekin. Tresna honen bidez, behar den informa-

zioa (oinarriak eta gai-zerrendak, legezko xedapenak, prozesua zertan den...) lortzeaz gain, interesatuak aukera dauka eskabidea sartzeko ere eta, handik aurrera, bere espedientearen egoera eta bere datu guztiak kontsultatu ahal izango ditu. Sistema honek norberaren zenbaki ezkutu bana ematen die izangaiei identifikatzeko; horrela, bermatu egiten zaie beren datuen isilpeketasuna. Halaber, nahiz eta eskabide guztiak interneten bidez eginda egon ez, prozesuan parte hartuko duen edozein izangaik bere egoera kontsultatu ahal du.

Hautaketa-prozesuetako aldiak aurrera joan ahala, eskatzailearekiko elkarrekintza handituz joango da. Honakoak kontsultatu ahal izango dira: lortutako puntuazioak, zehatz-mehatz; merezimenduen balorazioa; hautagaiaren hurrenkera-zenbakia; proben egutegia; erreklamatzeko epeak; eta abar. Informazio hori guztia datu-basean sartzen den unetik beretik egin ahal izango dira kontsultok, administrazio-egoitzetara jo beharrik gabe.

Nolabaiteko garrantzia duten datuak aipatzearen, azpimarratzekoa da guztira 50.569 eskabide egin direla, eta horietatik 12.281 (%24) Internet bidez jaso direla; azken kopuru horretan, %65 emakumezkoak dira eta %35 gizonezkoak. Paperean prozesatu diren eskabideak, berriz, 38.288 (%76) izan dira. Web orrian ibili direnen kopuruari dagokionez, lehenengo hilean 25.318 bisitaldi izan ziren (gutxienez 5 minutuko bisitaldiak egin dituztenak) eta ikusitako orrialde-kopurua 289.168 izan zen.

Badira, halaber, beste datu batzuk, anekdotikoagoak izan arren, argiro azaltzen digutenak zein nolako eragina duten informazio-teknologia berriek herri-administrazioarekiko harremanetan. Adibidez, internet bidez, atzeritik ere jaso ditugu hainbat eskabide (Estatu Batuetatik, Belgikatik, Britainia Handitik, Ekuadorretik, Frantziatik, Suitzatik...), eta hainbat kontsulta "auzo handi" honetako herrialde askotatik ere etorri dira.

Amaitzeko, aipatu beharrekoa da oraindik badagoela zeregina ugari, hau da, asko falta dela administrazioaren eta herritarren arteko komunikazio-bide hauek fidagarriagoak eta segurua- goak izan daitezen eta herritarren beharretara egokitu daitezten. Gaur egun, hala ere, oinarriko zutabe batzuk landu eta prestatzen ari dira: izenpe digitala, PKI deitutakoa (klabe publikoaren azpiegitura da, kriptografian oinarritua, hain zuzen ere ziurtagiri digitalak kudeatzeko aukera ematen duena, hau da, pertsonak identifikatzeko aukera ematen duena); telekomunikazioen azpiegiturak garatea; internet etxeetan eta ikastetxeetan jartzea; hirugarren belaunaldiko telefonia, WAP telefonia. Horiek guztiek, beste batzuekin batera, bide emango dute milurteko berri honetako informazio-gizartearen erronkei aurre egiteko, eta hori guztia ZERBITZUA ematearen helburu nagusia begi bistatik galdu gabe.

**Josu Uribe**

**HAEEKO informatikaria**

# Langile euskaldunen hizkuntz trebakuntza IKERLANen

Badira ia sei urte IKERLAN ikertegian euskararen erabilera areagotzeko plana martxan jarri zena. Mekatronikan aditua den enpresa honetan 200 langile ari dira lanean, gehien-gehienak oso kualifikatuak, eta horien erdiak baino gehiago euskaldunak dira. Hala ere, horietako askok ikasketa guztiak gaztelaraz eginak dituzte, eta urteetan gaztelaraz jardun dute lanean.

Testuinguru horretan, eta euskararen erabilera-planean parte hartzea borondatezkoa dela ahaztu gabe, erronka da ahalik eta langile gehien planean parte hartzera bultzatzea. Zer egin, ordea, langile euskaldunak ahalik eta beregaintasun mailarik handienarekin euskaraz jarduteko?

Beste esperientzia batzuen balorazioak oinarri, hainbat gogo-eta egin ditugu, eta egiten jarraitzen dugu. Eta, tamalez, esperientzia horietako askotan jendeak ordu askotako inbertsioa egin, eta, asko ikasi izanagatik ere, ez dute gero maila berean erabiltzen. Ohartu gara, halaber, ikastaro hauetan ez dakizkienaz gain, lehendik dakizkienak ere irakatsi zaizkiola, eta, behin baino gehiagotan, bere eginkizunak egiteko beharko dituenak baino dextente gehiago ere bai. Eta hori gutxi balitz, hainbatetan jarrera ezkorrak (“asko falta zait oraindik ikas-teko”) eta pasiboak ere eragin izan dira/ditugu (“irakats diezadatela, ezertan hasi baino lehen”).

Gogoeta horien harira, bestalde, jakin badakigu konfiantzarik eza dela langileak euskaraz lan egiteko duten arazorik nagusiena, bai hitz egiterakoan –bere-ziki gai teknikoan inguruan– eta, batez ere, idazterakoan.

Horiek horrela, IKERLANeko langileen hizkuntz trebakuntzak hiru lan-ardatz nagusi ditu, hurrenez hurren: dakitena erabiltzera bultzatu, beldurra kentzen eta animatzen ahalegindu, eta erabiltzerakoan aurkitu dituzten beharrian zehatzei erantzuten saiatu.

Eta, era berean, hiru dira lan-ardatz horiek garatzeko baliatu diren bitartekoak:

**1.– Komunikazio-zirkuluak.** Zortzi-hamar kideko taldeetan bilduz, langileak motibatu eta prestatu egin nahi dira: zuzenean parte hartuz, beraiek dira zer egin dezaketen definitzen dutenak, beraien prestakuntza-premiak zehazten dituztenak, eta erabiltzen jarri ondoren, beraien jarduna ebaluatzen dutenak. Langileen hizkuntz trebakuntza berariaz antolatutako trebatze-saioen bitartez egiten da.

**2.– Laneko interbentzioak.** Laguntza nahi duen langileak zerbitzu antolatua du bere eskura. Batetik, kontsultarako materialak ditu eskura (hiztegiak, gramatikak, Euskaltzaindiaren arauak, testu-ereduak,...), eta, bestetik, hiz-

kuntz teknikariaren laguntza du testuak zuzendu, itzulpenak egin eta, oro har, hizkuntz kontsultak egiteko. Zerbitzuaren bidez, langilea lasaitu eta animatu nahi dugu, inoren aurrean aurkeztu behar duen ahozko edo idatzizko testua zuzena eta egokia izatearen ziurtasuna eman. Bestalde, laguntza-prozesua ikasbide bihurtzea ere nahi dugu, hizkuntz teknikariaren lanari esker, langileari hutsegiterik usuenak poliki-poliki aurkeztuz eta hobekuntzarako estrategiak proposatuz.

**3.– Ikastaroak.** Aurreko bi ardatzak osatzera datoz: komunikazio-zirkuluetako trebatze-saioak eta laneko interbentzioak. Erabilera-plana martxan dagoenez geroztik, 1994az geroztik, lau ikastaro baino ez dira antolatu, eta horiek ere nahiko laburrak: 18/20 ordu bitartekoak.

Ikastaroon helburua izan da euskaraz idazteko dauden beldur-erak, lotsak eta aurreiritziak gainditzea eta kalitate hobeko komunikazioa lortzea, bai idatziz eta bai ahoz.

Metodologiari dagokionez, ikasleek idatzitako testuetan oinarritu dira, eta jokabidea izan da norberak duen hizkuntz gaitasuna ahalik eta ongien baliatzen ikastea, gramatika alde batera utzita, neurri handi batean. Testuok landu egin dituzte irakasleak eta ikaskideek, bereziki azpimarratuz testua irakurteraza den ala ez, eta, ez bada, nola hobetu daitekeen.

Urte hauetako esperientziak erakutsi digu langile euskaldunen hizkuntz trebakuntzan lehentasunezkoa dela euskara erabiltzeko aurreiritziak eta

konfiantzarik eza gainditzeko laguntzea eta hizkuntz zerbitzu eragingarri bat eskaintzea.

Horretarako, euskararen eta ondoko beste hizkuntzen egoerak hizpide hartuta, komunikazio egokiaren ezaugarriak lantzeraz jo izan da, langileen autoestima indartzen ahaleginduz eta, aldi berean, hizkuntzaren erabilera publikorako segurtasuna eskainiko dion zerbitzu bat antolatuz.

Bestalde, trebakuntza-premiak ongi zehaztea ere oso garrantzitsua da, ikaslearen motibazioa ondo bideratuta mantentzeko eta behar baino trebakuntza luzeagoak, desmotibatzaileagoak eta, zenbaitetan, garestiagoak baztertzeko.

Kontua da idien aurretik gurdia ez jartzea. Langileen jarrera landu behar da, erabiltzen hasteko, eta hortik aurrera erabilerak berak lagundu behar digu aurrera egiten.

**Xabier Elortza**  
HABEko teknikaria

“Lehentasunezkoa da euskara erabiltzeko aurreiritziak eta konfiantzarik eza gainditzeko laguntzea eta hizkuntz zerbitzu eragingarri bat eskaintzea”

# Tergal grisezko prakak

**I**nstitutu garaian erabaki zuen maisu izatea, hain justu, bere irakasleak gorrotatzen hasi zenean: haien harrokeria, txikitasun, bidegabekeria, ezintasun eta hipokresia antzeman zituen. Aita eta ama hiltzeko gogo sartu zitzaionean. Hasiera batean, eskolako kristalak harrira apurtzen zituen eta zabor-ontziei su ematen zien; klaseetara joateari utzi zion Simonen tabernan futbolinean aritzeko; kalimotxoak edaten zituen eta zigarroak erretzen –porroren bat ere bai lantzean behin–; *Lib*-eko neska titi handiei begira jotzen zuen kanpaia eta lagunekin elkarrizketa lizunak izaten zituen Simonen alaba Martaren ipurdi biribilari buruz. *Gutxi*egi bakoitza filmeetako heroi medailen gisa eskegitzen zuen lagunarteko solasaldi bular-tsuetan, eta ikasturtea errepikatzea ohore egin zitzaion.

Orduan egin zuen topo Kike maisuarekin. Ez zuen inolako zerikusirik gainerako irakasleekin: txima eta bizar luzeak, alkandora koloretsua eta fular morea lepotik zintzilik; betiko jertse azulmarino piko-dunen eta tergal grisezko praka pintzadunen arrastorik ez.

Ikastetxe atzeko mendi koskorrera eraman zituen Kikek klaseko lehen egunean, eta bederatziz hilabetez aurreratutako San Joan su batean filosofiako liburu lodiak erre zituzten. Lurrean eserita eztabaidatzen zuten gaztetxe baten beharraz, neska-mutilen arteko harremanez, langabeziari buruz...

Kikeren laguntzaz konturatu zen amorrarazten zuena ez zela ikastea, hezkuntza sistema ustela baizik. Irakasleak ez zirela berez harro, txiki, bidegabe, ezgai eta hipokrita, baizik eta irakaskuntza molde burgesaren biktima. Aita eta ama ez zituen hil nahi, esnatu baizik, eta gizarte kapitalistak egiten zien kalteaz ohartarazi.

Eskolako kristalak apurtzeari utzi eta banketxeetakoen aurka ekin zion; futbolina herriaren opioa iruditzen hasi zitzaion, eta eskoletara itzuli zen sistema barrutik borrokatzeko asmoz; haxixa eta maria hautatu zituen droga bakartzat, alkohola eta tabakoa baino askoz ere naturalagoak baitziren; neskekin elkarrizketa luzeak izaten zituen, eta barne edertasunean erreparatu ondoren, larrua jotzen zuen titi eskas eta ipurdi zabalako adiskideekin.

Iraultza handi bat gertatu zen bere espediente akademikoan, eta nota bikainekin bukatu zituen instituzioko obligazioak. Unibertsitaterako bidea hartu zuen bokazioz: maisu izan nahi zuen, munduko ikasle guztiak elkartu eta altxarazi. Pedagogia eredu alternatiboekin buruz egin zuen karrera ondorengo tesina. Munduko irakaslerik onena izango zela pentsatu zuen lehen-dabiziko aldiz ikasgelara sartu zenean. Irakasle-gelan bere txupa beltz eta bekaineko *piercing*-arekiko nabaritu zituen errezelo begiradek uste hori indartu baino ez zioten egin.

Azkenean, hantxe zituen parean, 15na urteko 60 begi iheskor eta 30 aho zurrun. *Spice Girls* eta modeloen arteko nahasketa merkea ematen zuten neskatok; *Back Street Boys* eta futbolista txima-futuristen artekoa mutilek. –“*Pijotxoak* aukeran, baina nik ernatuko ditut”–, pentsatu zuen bere golkorako.

Mendira joatea proposatu, eta nagikeria eta protestekin erantzun ziotenean, normala iruditu zitzaion. –“Bizi guztian gati-bu egon den presoak, hasieran ez du askatasunik nahi izaten”–, bere baitako gogoeta sakona. Lurrean eseritzeko ezez-

koari ez zion garrantzi handirik eman, baina zikindu egingo zirela eta antzeko erantzunek kezka pixka bat sortu zioten. Lotsari eta ohitura faltari egotzi zion drogei buruzko debata proposatu, eta bi lagunek bakarrik hitz egitea. *Estasia* eta beste pilula batzuk hartzen zituztela aitortu zuten Ixonek zein Ivanek, baina legalizazioaren kontra zeuden biak: –“jode, bestela istorioa asko desmadratuko da”–, bota zuten arrazoia. Irribarre barkatzaile behartu batekin erantzun zien.

Bigarren egunean, gaztetxe baten beharri buruz eztabaidatzeko proposamena egin zien, eta berak bakarrik jardun zuen ordubetez berriketa alferrean. Urdaila txingurritzen hasi zitzaion. Hirugarrenean, indarkeriaren zilegitasuna hautatu zuen eztabaidagai, eta isiltasunaren taktika ikasleei hitzeginarazteko estrategia gisa. Mutu iraun zuten guztiek ordubetez. Urdaileko txingurriak biderkatu egin zitzaizkion. Laugarrenean, sexua eta pornografia. Aldizkari batzuk banatu zituen probokatzeko. Begiratu, begiratu zituzten, baina beren arteko komentario isekari eta telefono mugikorren “pipiripi” karrankariez gain deus ez. Txingurriak eztarrian gora.

Bosgarrenean, ezustekoa. Janire eskua altxatuta hitzegiteko txanda eske topatu zuen gelara sartu orduko; barrera irauli zitzaion –“Lortu dut! Hasi dira esnatzen!”–, atera zitzaion ahopetik. –“Begira Josu”–, ekin zion Janirek serio-serio, –“gure artean hitzein dugu, eta ez zaigu batere gustatzen klaseak nola ematen dituzun. Debateak txorradak iruditzen zaizkigu, denbora alperrik galtzea, eta konturatu gara ikasturteko programa selektibitaterako oso-oso inportantea dela, eta nota ona ateratzea komeni zaigula. Beraz, liburuko edukinekin hasi nahi dugu gaur bertan, bestela gurasoei emango diegu gertatzen ari denaren berri”–, bukatu zuen hotz eta zorrotz.

Tergalezko praka gris eta jertse azulmarinoa jantzi zituen hurrengo egunean. Harrezkero, leiho apurtu edo zabor-ontzi kiskaliren bat topatzen du goizero-goizero Institutuko atezainak.

**“*Spice Girls* eta modeloen arteko nahasketa merkea ematen zuten neskatok; *Back Street Boys* eta futbolista txima-futuristen artekoa mutilek”**

**Idurre Eskisabel**  
**Idazlea**



## Mundua on line

### Prestakuntza on line

Interneten bidez, langileentzako prestakuntza emateko eta jasotzeko era berriak sortu dira. Horretaz baliatuz, hainbat erakunde sarean zehar eskaintzen dituzten ikastaroak aztertu ditugu:

- Eusko Ikaskuntzak urrutiko prestakuntza interesgarria eskaintzen du ([suse00.su.ehu.es](http://suse00.su.ehu.es)): Ingurumen Zuzenbideko Masterra, Kazetaritza Digitala, Elkarreraginezko Ikastaroa Eusko Ikasgaietan eta Nazioarteko Merkataritzako Masterra.
- Webgune honek, [www.cyberformacion.com](http://www.cyberformacion.com), urrutiko prestakuntzari buruzko informazioa bildu eta aurkezten du, eta behar bezala eguneratuta egongo dela ziurtatzen du.
- Helbide honetan, [www.geolearning.com](http://www.geolearning.com), prestakuntza eta hobekuntzari buruzko zenbait ikastaro aurki daitezke, lidergoaren inguruak batez ere.
- Office 2000ko ikastaroak daude [www.learn2.com](http://www.learn2.com) orrian.
- Beste katalogo honetan, [www.vcampus.com](http://www.vcampus.com), ikastaroen zerrenda luzea kontsulta daiteke. Barne hartzen dituen arloak: telekomunikazioa, web-diseinua, sistema eragi-leak, etab.
- *Management*, giza baliabideak, finantzak, marketing-a... [www.effective-management.com](http://www.effective-management.com) helbidean ikas daitezke.
- Madrilgo Unibertsitate Politeknikoak ere ikastaro batzuk eskaintzen ditu multimedia teknologia erabiliz ([www.cepade.es](http://www.cepade.es)). Campus eta gela birtualak ditu, Interneten bidez masterrak egiteko egokituak.

Luis Elizondo

[luis-elizondo@ivap.es](mailto:luis-elizondo@ivap.es)

## Gaztetxulo gazteentzako aldizkari berria

Donostiako *Irutxulo* aldizkariak argitaratzen duen *Gaztetxulo* gehigarria Euskal Herri osorako aldizkari bihurtu da, eta dagoeneko salgai izango duzue kioskoetan. Aro berri honetan orrialde gehiago izango du, eta musika, zinema, gazte literatura, sexua, teknologia berriak, gau giroa eta zientzia izango dira jorratuko dituen gai nagusiak.

Aldizkaria 15-25 urte bitarteko gazteentzat egina dago, eta ahalegindu dira aldizkari fresko, irakurterraz eta, diseinu aldetik, erakargarria egiten. Banaketari dagokionez, harpidetzaz gain, zazpi probintzietako kioskoetan ere izango da salgai 300 pezetan.

## Begira, euskararen bilakaera neurtzeko tresna

SEIk (Euskal Soziolinguistika Institutua Sortzen) *Begira* izeneko tresna informatikoa eskaintzen du prospekzioak egiteko. Tresna hori Excel 97 programa informatikoan eraturako kalkulu liburua da, eta erabilgarria dugu euskararen ezagutzak eta erabilerak izango duten bilakaera kalkulatzeko. Edozein auzoren, herriren, herrialderen, eta gainontzekoen hizkuntz bilakaera aurreikusteko erabili daiteke tresna. Horretarako, datu batzuk sartu besterik ez dugu egin behar, eta probabilitate kalkulu batzuen arabera, guk eskatutako epean zer-nolako bilakaera izango den esango digu.

## Añamendi Entziklopedia laster interneten

EHUko Udako Ikastaroetan jakitera eman zenez, udazken honetan egon daiteke kontsultagai interneten *Añamendi Entziklopedia*. *Enciclopedia General Ilustrada del País Vasco* izenez ere ezagutzen den lan hau *Britannica* baino handiagoa da, eta lan ikaragarri horren erakusle, hona datu batzuk: 30.000 orri, 50.000 irudi (argazki, marrazki...) eta 100 milioi karaktere. Entziklopedia eguneratzen ari dira, eta bertsio berria hemendik lauzpabost urtera kaleratzea espero dute.

## Euskaldunon gida eta posta kodeak

Argitalpen hau kalean duzu dagoeneko, eta hor eguneroko bizitzan behar ditugun zerbitzu gehienak euskaraz non lortu aurkitu ahal izango duzu. Gida hau lau ataletan sailkatuta dago, horietako bi nagusiak: Gida Horia eta Gida Zuria. Gida Horian euskal profesional, enpresa eta taldeak arloka sailkatuta daude. Gida Zurian, berriz, dendak eta horrelakoak ageri dira, hau da, herri batera joandakoan euskaraz non egin ahal izango dugun jakiteko balioko du. Hirugarrenean, hau da, Gida Urdinean, Euskal Herri osoko eta hiriburu eta herri handietako kaleen posta-kodeak jasotzen dira. Laugarren gidak fax zenbakiak eta helbide elektronikoak biltzen ditu.

Gida hau interneten jarriko dute azaroan ([www.euskaldunon.gida.net](http://www.euskaldunon.gida.net)), eta horrek bide emango du kontsulta modu askotara egiteko, eta helbide berriak izan ahala berehala eguneratzeko.



# Bihurrikeria erraza

**B**ere urtebetetze egunean zuen Alaitzek Espainiako Nortasun Agiri Estatala berritzera joateko hitzordua. Goizeko bederatzietan, Tafallako udaletxean. Ez zuen gogo handirik, baina *Nortasun Agiri Nazionala* omen zen hura ezinbestekoa zuen hainbat kontutarako eta, beraz, berritzea erabaki zuen. Baziren hiru urte, lan kontuak zirela eta, Donostia utzi eta Tafallara aldatu zela. Eta pare bat, gutxienez, nortasun agiri arrotz hura berritu behar zuela.

Etxeko atarira irten orduko itzuli behar izan zuen gora, aterkia hartzera. Berandu zen. Eta etxeko atea ixtear zuela jo zuen telefonoak. Eguneko lehen deia zen, zorionak emateaz gogoratu zen lehen lagunarena. Telefonoa eskegi aurretik jo zuen ateko txirrinak ere. Presaka agurtu zuen hariaren bestaldeko laguna, eta atea ireki zuen. Loredendakoak ziren, lore handi batekin.

– Egunon. Alaitx Errazkin? –galde-tu zuen lorearen atzealdeko hark, gazteleraz.

Ez zuen han Alaitxik ez zela bizi esateko denborarik eta gogorik. Bere izena Alaitz zela eta abar eta abar. Berandu zen. Astelehen buruzuria, kaleak euripean, eta udaletxera atzerapenez zihoan. Lorea hartu eta irribarre merke batez agurtu zuen loredendako langilea. Eta berandu izan arren, ez zion berriro etxetik atera aurretik lorea nork bidali zion jakin nahiaren tentazioari eutsi ahal izan. Bazekien gurasoek eta anai-arrebek bidalitakoa izanzen zela, Tafallara aldatu zenetik bere urtebetetze egun guztietan egin zuten moduan baina, hala ere, gogotsu zabaldu zuen loreari itsatsitako txartela. “Sorionak eta, surtebe tetxe, on!” Juanjo, Susana, Ekitz eta Ainitxe” irakurri zuen, urtero beza-

Launaka sartzen zituzten. Bera, bere gisa agiria berritzera joandako beste hiru eta lau polizia espainiar zeuden bertan. Bat, batetik besterako ordenagailu horietako batekin. Bestea argazkiak mozten. Hirugarrena hatz-markak hartu eta non sinatu adierazten. Eta laugarrena, potrojorran, begira.


– Alaitx Errazquin Ochotorena –esan zuen halako batean ordenagailuaren aurrean zegoenak, gazteleraz, noski, gainerako guztia bezala–. Gurasoak: Juan Jose eta Susana. Donostia, Gipuzkoa, 1972ko apirilaren 17a. Ezin dizugu Gipuzkoa lehen bezala idatzi. Ordenagailuak gazteleraz bakarrik uzten digu idazten: *Guipuzcoa*.

– Orduan zuen ordenagailua ez da legezkoa. Gipuzkoaren izen ofizial bakarra Gipuzkoa baita, euskaraz. Espainiar estatuko probintzia horrek ez du beste izen ofizialik. Baina, beno, egin ezazue nahi duzuen.

Gazteleraz hitz egin zuen Alaitzek baina, esan zuenagatik, lehen mespretxu begiratu egin zioten lau poliziek. Gero, hatz erakuslea beltzez zikindu eta hatz-markak hartu zizkion batek.

– Sina ezazu hemen –esan zion ondoren polizia berak, serio demonio.

Dagoeneko nahikoa haserreturik zegoen neskari, bihurrikeria berezia bururatu zitzaion. Eta bi aldiz pentsatu gabe, bere sinadurari zegokion lekuan, Euskal Herrian Euskaraz elkar-tearen ikurra marraztu zuen, sinadura balitz bezala. Eta ikurraren azpian, *euskaraz!* idatzi zuen. Poliziak ez zion ezer esan eta hilabete barru udaletxean bertan *Nortasun Agiri Nazional* berria eskura izanzen zuela jakinarazi zioten.



la irribarre eginez. Izan ere, gurasoek Donostiako loredenda batean aukeratzen zuten lorea. Bertakoek, kate-bereko Tafallako loredendara deitzen zuten eta hemengoek, benetan inozaok zirelako edo intentzio txarrez, urtero-urtero, akatsez beteriko txartela helarazten zioten Alaitzi lore ederrarekin batera.

Ia ordulaurdeneko atzerapenarekin iritsi zen udaletxera. Bertan ikusi zuen jende ilarak, berriz, han, gutxienez ordu-beterako bazuela pentsarazi zion. Eta ez zebilen oker... Dagoeneko bi lan-ordu galduta eta ilaran jendeak esaten zituen inozokeriak entzuteaz nazkatuta, hamaiketan sartu baitzen, azkenean, bulego gisa atunduriko gela estu hartara.



Uste baino umore hobearrekin atera zen bulegotik Alaitz. Berandu zen eta euriak gogotik zirauen, baina lanerako bidean irribarre antzeman zitekeen bere aurpegian. Lankideekin hamaiketakoa egiteko zerbait erosi zuen supermerkatuan. Txartelarekin ordaindu ostean Euskal Nortasun Agiria erakutsi zuen. Beste behin, hark ez zuela balio eta Espainiako Nortasun Agiria erakustera behartu zuten. Baita handik hilabete eta egun gutxira ere, Guardia Zibilaren kontrol zorrotz batean. Eta guardia zibilek ezagutu egin zuten nortasun agirian nabarmentzen zen Euskal Herrian Euskaraz-en ikur hura...

**Garikoitz Berasaluze**  
Idazlea



# Juan Garzia Garmendia

“Idaztea ikasi eta landu behar den zerbait da”

Donostiako Santo Tomas lizeoan zortzi urte eman ostean, ALAIEn (Administrazio eta Lege Arloko Itzultzaile Eskola) eta EHUKo Graduondoko Itzulpen Masterrean lan egin du. Hainbat liburu (*Itzalen itzal*, *Fadoa Coinbran...*) argitaratu ditu, heldu zein gazte literaturan. Hala ere, itzulpengintzaren alorrean da ezaguna gehienbat. Dagoeneko itzulita dituen literatura unibertsaleko liburuei beste hiru gehituko zaizkie luze gabe: *Pedro Paramo* (Juan Rulfo), *Bizitza alegiazkoak* (Marcel Schwob) eta *Hamlet* (William Shakespeare). Horretaz guztiaz gain, *Joskera Lantegi* liburua argitaratu zuen orain hiru urte. Liburu interesgarri hau izan da gure elkarrizketaren abiapuntua.

**Hitzurrean esaten denez, puntuazioko, egiturazko eta estilozko zalantzei argi piska bat ematea du helburu *Joskera Lantegi* liburua. Horren harira, iritzi-emate eta kritika oro ongi etorria izango zela zenioen.**

Egia aitortzera, oraindik ez dut kritika sakon edo luzerik ikusi. Liburua argitaratu zenean aipu tiki batzuk atera ziren egunkarietan. Badakit, baita ere, alderdiren bati buruz (erlatiboa, esateko) desadostasunen bat agertu duela norbaitek, baina hortik harago, ezer ez. Bestalde, hainbat ikastarotan jendeak esan didana dago. Batez ere, itzultzaile, zuzentzaile eta estilo-arduradunek estimatu dute nire lan hori. Batzuei, dena den, liburua gogorra egin zaie. Jendeak gauza sinpletuagoak edo kasuistikoagoak eskatzen ditu; errezeta erraz moduan aukeran; eta nireak hasieratik bilatzen du, esplizituki, zerbait erabatekoagoa: auziaren bihotzeraino bidaiatzea. Bestela, azaltzen diren kontuekin adostasun handia egon da, neuk uste nuen baino handiagoa (badabil zeharkako kritikaren bat hitzen ordenamendu estandarraz egiten dudan deskribapenari buruz, baina muturreko bezain bazterreko diren jarretatik egina, ez baitoa nire deskribapenaren kontra soilik, zuzenean egungo idazleria ia guztiaren kontra baizik). Beharbada, orain hasiko da gauza batzuen gainean eztabaida zehatzago bat. Eta horixe nahiko nuke nik ere.

**Arlo honetan, araua ezar lezakeen liburu baten beharrik ba al da?**

Gramatika eta arauaren inguruan jende asko erotuta-edo bide dabil gurean. Haiek beharrezkoak dira, jakina. Ez dut ezer haien aurka. Kontua besterik da: haiekin bakarrik ezin da ezer egin. Ezinbestez betebeharreko kontuak dira noski, gure hizkuntzak lehenik ere erabakita eduki behar zituenak. Nik neuk, ordea, gramatikatik harantzago joan nahi nuen *Joskera Lantegi* liburuan, erabilerarantz, hots, estilo esaten zaionerantz, zentzu zabalean. Izenburua *Gramatikaren Pulamentuak* jarri ez jarri ibili nintzen, alegia, fundamentuz erabiltzea hizkuntza. Saiatu naiz ikusten zein bidetatik garatu joskera bat, prosa eredu egoki bat, estiloaren zabalean. Ildo horretatik, ez da Euskaltzaindiaren kontrako kexa bat izan nirea. Ez dut uste estiloaren

kontuan Euskaltzaindiak araurik eman dezakeenik. Ereduetatik egiten da hori batik bat. Nik egin dudana, bada, asmoz behintzat, praktika baten sistematizazioa da. Ez da teoria hutsa egitea. Liburuan bertan diot nirea esperientzia bat biltzeko lagungarri bat dela; azkeneko urteetako itzulpengintzan eta testugintzan ikusi ditudan arazoak aztertu ditut. Beraz, ereduaren kontua da, ez horrenbeste arauena. Bestalde, arauen kontu horrekin jende asko erotuta dabilenez, askotan horrek aitzakia moduan funtzionatzen du. Jendeak txiki-kerietan alferrikatzen ditu indarrak eta testua ondo antolatzearen kontu horretan edozer gauza pasatzen da edo pasatu nahi izaten da batzuetan.

**Joskera malgutzearen aldeko zara, beraz.**

Hor oso lausoak dira kontuak. Ortografian, “hitza honela idazten da” esaten dugu. Joskeran, ordea, ezin da horrelakorik esan. Testua bazterrik gabeko itsasoa da eta, hortaz, ezin da dena arautu. Bide batzuk ezar daitezke, nondik jotzea komeni den edo

litzatekeen. Hain zuzen ere, erdarazko egitura sintaktikoak zertan ez diren imitatu behar saiatu nintzen adierazten neure liburuan, egitura horiek ezin direlako ondo egokitu euskaraz. Adierazi nahi izan dut zein bidetatik funtziona litekeen hobeto. Baina hori hastapen bat da. Eginaz ikasten da testuak egiten.

**Ironia darabilzu liburuan. Nork izan beharko luke horren hartzailea?**

Ironia baino gehiago, umore pittin bat sartu dut. Zerbait alorretan arduragabekeria nabarmena da, bai eta, hein batean, hipokresia punttu bat ere. Askotan ostrukarena egiten dugu. Borondate ona aitzakia moduan erabiltzen dugu zabarkeria zuritzeko. Eta zabarkeria egunerokoa baldin bada, arazoa ez da bakarrik norberarena, baizik eta erakundeena ere. Hori da telebistako esatari batzuen kasua, esate baterako. Alor horretan ere badira esatari bikainak, jakina. Baina euskaraz egiten direnen tamainako aldrebeskeria bakan batzuk erdaraz agertuko balira, jendeak barre egingo lieke aurpegira eta konpondu egingo lukete berehala kontua. Telebista, gainera, tresna ikaragarria da hizkuntzaren garapenerako, onerako edo txarrerako, eta uste dut askoz hobeto aprobeitza daitekeela eredu onak zabaltzeko.

“Ondo bereizi behar da, batetik, zer den lagun artean ibiltzeko ahozko euskara baleko bat eta, bestetik, tajuzko euskara idatzi bat”

## **Telebista komunikabideen arloan dugu. Baina euskara, gaur egun, gizartearen alor guztietara edo ia guztietara iristen da. Hori horrela izanik, ez dugu burua zertan puskatu akatsak alor guztietan gertatzen direla ohartzeko.**

Esan beharra daukat nire kezka ez dela, horrenbeste, ahozko euskararena. Nire kezka nagusia euskarazko prosa idatziaren bidea da eta, zehatzago, testu formalena; hizkuntza zorrotza, egokia, funtzionala lortzearena. Niretzat erabilera oker guztiak dira kezkagarriak, noski, baina nire ardura nagusia bestelakoa da. Euskararen kalitateari buruzko kanpainak ateratzen dira, bai, baina, egia esan, gero gauzak beren bidetik doaz, ez dakit zenbaterainoko kontrola dagoen. Gurean neke handiak hartu dira euskararen ezagutza bultzatzeko, baina hizkuntza ondo erabiltzearen kontuan, ordea, ez dut horrenbesteko ardurarik ikusten. Egia da ahalegin handiak egiten ari direla, baina ez dago zirkuitu osaturik. Katalunian, beharbada erabaki gutxiago hartzen da, baina zerbait baldin badago gizarte osora zabaltzen da. Han kontrolak ezarrita daude eta gizarte antolatuta baten moduan funtzionatzen da.

## **Batetik, axolagabekeria, erdipurdikeria. Bestetik, aldiz, horri aurre egiten dionik ere badago. Egoera honek ba al du zerikusirik diglosiarekin?**

Dudarik ez. Horregatik diot zaila dela. Hala ere, jendeak, apaltasun pixka batez, neurtu egin beharko luke bere burua. Gauza bat da bere mailan ahal duen ondoen egitea eta beste bat da, berriz, hitza publikoa denean, hasi eta buka jasanezina den testu bat, euskarari batere mesederik egiten ez diona, kaleratzea. Ondo bereizi behar da, batetik, zer den lagun artean ibiltzeko ahozko euskara baleko bat eta, bestetik, tajuzko euskara idatzi bat. Idaztea ikasi eta landu behar den zerbait baita. Gu, ordea, aitzakia bila ibiltzen gara gau eta egun: “Hobe gaizki erdaraz baino”. Eta, alde horretatik, euskara negargarri batean jarduten duenak ez du batere presiorik jasaten. Hor, oreka bat bilatu behar da.

## **Zelan ikusten duzu administrazioan egiten den lana?**

Administrazioa oso zabala da: bada hor hainbat joera eta alor desberdin. Ez dut uste orokorrean hitz egin daitekeenik. Dena den, eta oraindik egiteko bidea bada ere, aurrerapauso handiak egin dira. Badaude arazo batzuk nire ustez konbentzional hutsak direnak baina lan handia ematen dutenak. Eta benetako arazoa beharko lukeena, hau da, testu irakurgarriak sortzearena, ostera, bigarren mailan geratzen da. Itzulpengitzari dagokionez, aipatu beharra dago gazteleraz jasotzen diren testu asko oso kaskarrak direla. Ez da harritzekoa, bada, gure ikastaroetan denboraren erdia pasatzea testu horiek aztertzen. Horiek horrela, itzulpen-teknikak hobetzeaz gainera, gero eta testu gehiago sortu beharko litzateke euskaraz. Baina hor ere bada arduradunen artean zabarkeria handi samarra, goitik datorrena. Itzultzaileak lan-zama handia du, bistan da. Eta zama hori arindu behar da, hasteko, eta beste baldintza batzuk ere hobetu, testu hobeak nahi badira. Bestalde, kritika-saio batzuk ere egin behar dira noski, erruen arazoa alde batera utzita. Kontua da, denetara, ahalegin handia egiten ari dela, dirutan eta bestelakoetan. Espero izatekoa den etekina atera beharko litzaioke horri. Bestela, fatxada zuriketa hutsean jarduteko arriskua dago.

## **Itzulpen-teknikak hobetu egin behar direla aipatu duzu. Zertan lagun dezake datorren ikasturtetik aurrera abian jarriko den Itzulpengintza lizentziaturak?**

Ez dut gai horretaz hitz egiteko gogo handirik. Gauzak ikusten ari naizen moduan, batere aurrerabiderik ekartzeko trazarik ez du. Esan beharra dago, orain arteko master eta izan diren eskoletan,

ikasleak lizentziatura batetik-edo zetozela. Orain, UBItik, lau urtean ez da miraririk egingo. Horiek berezko mugak ditu lizentziaturak, eta gero, gainera, euskara/gaztelania bikotea (praktikan nagusia dena) apur bat deslekuan geratzen da, plangintza derrigortuan, bestelako hizkuntza bikoteen artean. Bestalde, nik dakidala, dirudenez (eta ez da erraza irudipen hutsetatik hara jotzen sekretulandia horretan), ez da itzultzaileak ia batere izango, edo oso-oso gutxi, irakasleen artean. Gauzak gaizki abiatu dira, nik uste. Ikusiko dugu gerora zer gertatzen den. Urte mordera daramat nik kontu hauetan, lehenengo IVAPEk antolatuta zuen eskolan eta gero hortik sorturiko Masterrean, beti ere itzulpen-ikasketa itxurazkoago batzuk noiz antolatuko zain. Eta nire ametsetako bat honako hau zen: lizentziatura hori martxan jartzen baldin bazen, esperientziadun itzultzaile-irakasleen artean ikerketarako eta materiala sortzeko talde-lana zertzea.

## **Zer ekarri diete Literatura Unibertsala edo Pentsamenduaren Klasikoak gisako egitasmoek literaturari berari eta euskarari?**

Nik neuk literaturarena segitzen dut gehienbat. Hor zegoen eta dagoen hutsune handi bat betetzen ari da. Horiei bezalako proiektuei esker, itzultzaile batzuek baldintza duinagoetan lan egin ahal izan dute, eta lehen esan dugunez, horrek aukera eman du gauzak ahal den ondoen egiteko. Eta, gure maila honetan, nahiz jende askorentzat hori oso mundu marjinala izan, uste dut aurrerabiderik handiena hor egin dela. Literatur itzulpenean oso jende ona ateratzen ari da bazter guztietatik. Eta horrek eragina du inguruan, noski. Zoritxarrez, jendeak oso gutxi irakurtzen du hori nahiz beste guztia. Irakurleria martxa berera egokitzea falta da.

## **Idazlea ere bazara. Zure liburu gehienak aurreko hamarkadakoak dira. Idaztea berandu iritsi al zaizun zaletasuna da?**

Badira idazle batzuk hemezortzi urterekin eleberriak argitaratzen dituztenak. Nik, egia da, lehenengo saioak 28 urterekin egin nituen. Dena den, gorabeherak ditut eta ez diot neure buruari inolako obligaziorik ezartzen idazteko. Borgesek esaten zuen moduan, niri gehiago gustatzen zaizkit besteren liburuak neureak baino. Hobeto pasatzen dut literatur lanak itzultzen. Neure buruari urtean-urtean gauza batzuk argitaratzearen zama jarriko banio, nagoen baino erotuago nengoke. Eta hortik bizitzea, berriz...

## **Zabal al dabil gure literaturan euskara morderoia, apo-euskara? Zer deritzezu hainbat idazlek hartzen dituzten lizentzia literarioei?**

Egun, zabartasun maila bat defenditzen dutenak ere sartzen ari dira hizkuntzak egin duen bidera. Denok kutsatzen gara. Hizkuntza gizarte-kontu bat da; kutsakorra da, beraz. Oro har, euskara formal txukunagoa dabil orain, duela urte batzuk baino. Badago, baita ere, beste alor guztietan bezalaxe, zabarkeria edo erdipurdikeria ugari. Lizentziei dagokienez, ni neu oso naiz lizentziazalea. Lizentziak araua suposatzen du, araukiko hartzen da lizentzia beti. Lizentzia kontzeptu nagusia da estiloan, bereziki literaturan. Baina, arren, lizentzia izan dadila! Batzuetan ez dakizu lizentzia ala akats gramatikala den: ez irakurleak, eta ez idatzi duenak ere. Bestalde, tentuz aukeratu behar dira lizentziak. Jendeak, batzuetan, erdarazko testuetara arazorik gabe egokitzen direnak hartzen ditu, euskarazkoetarako egokiak diren ala ez erreparatu gabe.

# ESKOLARI BEGIRA: ZER ALDATU DA AZKEN URTEOTAN?

Azken hamar urteotan aldaketa sakonak izan dira eskoletan; Hezkuntza Sistemaren Antolamendu Orokorreko Legeak, LOGSEk, apurka-apurka ezarri baititu hezkuntzaren erreformaren oinarriak. Eta zertan dira aldaketok? Batek baino gehiagok pentsatu ohi du betiko praktikak direla, baina beste izen batzuekin; eta beste hainbatek, ordea, irakaskuntza errotik aldatu dela, ezer ez dela lehen bezala egiten... Artikulu honetan saiatuko gara, gainera bada ere, gaur egungo hezkuntza sistemaren ikuspegi orokor bat ematen, batez ere, aldaketa esanguratsuenak zeintzuk izan diren aipatzen.

**Hizkuntza gaitasunen garrantzia.** Arlo honetan izugarrizko eraldaketa ekarri zuen euskararen ofizialtasunak eta irakaskuntza elebidunaren ezarpenak. Gure hezkuntza sistematik bi hizkuntza ofizialen ezagutza ziurtatzeaz gain, atzerriko hizkuntza bat lantzea agintzen du eta atzerriko beste hizkuntza bat aukeran eskaintzen Bigarren Hezkuntzan. Horrezaz gain, LOGSEk hizkuntza gaitasunei ematen dien garrantziaz jabe gaitzen kontuan har dezagun derrigorrezko etapetan, hau da, 6 urtetik 16 urtera bitartean, ikasdenboraren herena, gutxienez, hizkuntzak lantzeko dela.

**Edukiei dagokienez,** berrikuntzarik nabarmenatarikoa da ikasleak ikasten ari direnaz eta ikaskuntza horien zertarako az jabetzea. Landu beharreko edukien artean berebiziko garrantzia ematen zaie trebetasun eta estrategia kognitiboei, eta baita balore eta jarrerai ere. Hala ere, hori ez da gauza berria, betidanik transmititu baitira baloreak eskolan; baina orain lan hori argi eta garbi azaltzen da, beraz, agerikoa da.

**Ikaste prozesua.** Hezkuntza orain arte irakaskuntzarekin identifikatu izan da; hau da, irakatsi beharreko gaien jartzen zuten ardurarik handiena bai irakasleek, bai gurasoek bai ikasleek. Gaur egun, irakaskuntzarekin batera, ikaste prozesuari buruzko kezka dago, irakatsi beharreko gai edo arloa bezain garrantzitsua da ikasleek nola ikasten duten jakitea; eta, beraz, irakasleon zeregin nagusietako bat da prozesu horretan nola lagun dezakegun aztertzea, eta behar den guztietan, prozesua ziurtatzeko egokitzapenak egitea.

**Aniztasunaren onarpena.** LOGSEk oinarriko eta derrigorrezko hezkuntzako ikasle guztiontzako hezkuntza espektatiba beretsuak ezartzen ditu. Horrek esan nahi du haur guztiek dutela eskubidea oinarriko hezkuntza jasotzeko eta eskolak, eta batez ere irakasleek, ahalegin berezia egin behar dutela ikasleentzako errotik, interes, aztura, gaitasun... guztiei erantzun egokia emateko. Beste hezkuntza lege batzuek ez bezala, oinarriko ibilbidea markatzen du lege honek, ikasleentzako aldeak aberastasun iturri bihurtuz. Baten batek arreta berezia behar izanez gero, ikastetxean bertan aurkitzen zaio bere neurriko erantzuna plangintza pertsonalizatu baten bidez. Egokitu daitezke, adibidez, zeregin jakin bati eskainiko zaion denbora edo baliabideak (testuak nahiz irakasleak), baina azken helburuei uko egin gabe.

**Zikloetako egitura.** Ikasleak eskolan sartzen denetik –gure artean 2 edo 3 urterekin eskolaratzen dira gehienak– hiru etapa gainditzen ditu derrigorrezko hezkuntza amaitu arte. Lehenengoa borondatezkoa da, Haur Hezkuntza, eta bi ziklotan antolatua dago 0 urtetik 3 urtera bata, eta 3tik 6ra bestea. Lehen Hezkuntzak hiru ziklo hartzen ditu bina urte-

takoak (6-8, 8-10 eta 10-12) eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzak bi ziklo, horiek ere bina urtetakoak (12-14 eta 14-16). Zikloetako egitura horrek badu zerikusirik haurren garapen psiko-ebolutiboarekin eta hezkuntza interbentzioaren egokitzapena errazten du; izan ere, helburuak zikloka antolatzen dira, ikasle bakoitzari aukerak emanez bere errotuan bereganatzeko.

**Hezkuntza ibilbideak.** Ikasleentzako aniztasunari erreparatuz, derrigorrezko etapen bertan eta nork bere ibilaldi propioa eraiki dezan ahalbidetzeko, DBHko lehenengo zikloan, aukerako ikasgai bat eskaintzen zaie ikasleei; geroago, 2. zikloan gehiago dira; eta ostean, Batxilergoan, hautazko esparrua daukate. Ikasgai horien helburua ikasleentzako geroako prestakuntzari lotuago dagoen jakintza arloetara hurbiltzea da, eta horretarako, artea, teknologia eta natur eta giza zientzien inguruko ikasketak jarraitzeko aukera ematen zaie.

**Tutoretza saioen garrantzia.** Irakasle batzuek –bat ikastaldeko– bere gain hartzen dute ikasle horiekiko ardura: gurasoekiko harremanak bideratzen dituzte, beste irakasleentzako interbentzioak koordinatzen eta berariazko saioak antolatzen dizkiete ikasleei. Saio horietan beste arlo batzuetan nekez landu daitezkeen elkarbizitazarako trebetasunak jorratzen dira: elkarri aditu, norberaren iritziak errespetuz adierazi, besteekiko begirunea azaldu... Modu horretara, neska-mutilen garapenean hain garrantzitsuak diren sozializazio prozesuak eta ikasle guztien heldutasuna eta integrazioa zaintzen dira.

**Ikastetxea ingurunekeo gizartean txertatua.** Gurasoen eta ikasleentzako parte-hartzea sustatzeaz gain, gaurko eskola gizarteari irekita dago, eta gizarteko gai garrantzitsuenek ere badute tokia ohiko jakintzagaiekin batera. Hala, geure inguruan pil-pilean diren zenbait gai planteatzen dira, ikasleentzat hurbilak eta interesgarriak, eta jarrera pertsonala eskatzen dutenak; hala nola, bakea, kontsumoa, osasuna, sexua...

Hauxe izan da di-da batean egindako gainbegirada, gure eskoletan izandako aldaketen berri emateko asmoz. Bistan da aldaketak ez direla toki guztietan errotik berean ezartzen, eta batzuetan, irakaskuntzaren erreformak ez dakarrela praktikan teoriarik aurreikusitako norabidea. Gizartea etengabe aldatzen doan heinean, aldaketok berehala galdatzen dute euren isla eskolan; eta eskolari, sarritan, kosta egiten zaio egokitzea, dela bere egitura beragatik edota, askotan, gu geu, irakasleok, izan dugun prestakuntzaren menpe gaudelako oraindik.

**Francisco Luna eta Gloria Rey**  
Curriculum Eratzeko Institutua

# Teknologia berriak itzulpengintzan: itzulpen-memoriak

## TEKNOLOGIA BERRIAK ITZULPENGINTZAN

Gauza jakina da ordenadoreek nabarmen aldatu digutela lan egiteko modua, baita informazioa bilatu eta trukatzeko ere. Itzultzaileengan ere aldaketa horiek izan dute eragina, noski. Ordenadoreko testu-prozesadorea erabiltzeak idazmakinarean aldean dakartzan abantailez gain, baditugu beste hainbat ere: CD-ROM formatuan egindako hiztegiak, hizkuntza-zuzentzaileak, Internet bidez informazioa eskuratzeko eta trukatzeko modua, *web* orrialdeen nahiz posta elektronikoaren bidez, eta abar.

Itzulpengintzari aplikatutako teknologia berrien artean, hala ere, behar bada erakargarriena dirudiena edo zeresan gehien eragiten duena **itzulpen automatikoa** da. Batzuetan entzuten dira itzulpen automatikoari buruzko berri deigarriak: Katalunian bada katalanez eta gaztelaniaz argitaratzen den egunkari bat, eta itzulpen automatikoa erabiltzen dute horretarako. Kanadan ere bada eguraldi parteak ingelesetik frantsesera primeran itzultzen dituen programa bat. Hainbat iritzi dago itzulpen automatikoari buruz. Batzuek uste dute horrelako edozein programa eskuratuta itzulpenaren arazoa konpondu daitekeela eta ez dela itzultzaileen beharrik izango. Beste batzuek, berriz, horrelako programek ez dutela ezertarako balio. Egia esan, programa horiek abantaila batzuk eskaini ditzakete. Orokorrean itzulpen zirriborroak egiteko baliagarriak izan daitezke baina ez itzulpen txukun bat lortzeko, salbuespenak salbuespen. Kanadako eguraldi parteak itzultzen dituen programaren kasuan esan beharra dago oso hizkuntza zehatza eta mugatua erabiltzen duen arlo bat delako funtzionatzen duela primeran programa horrek. Katalanaren kasuan kontuan hartu behar da, betiko itzulpenaren kasuan bezala, erro berekoak edo antzekoak diren hizkuntzekin askoz ere errazagoa dela itzulpen egokiak lortzea. Hori ez da euskararen kasua. Gaztelaniatik euskarara itzultzen duen

programa automatikoa lortzea katalanera itzultzen duena lortzea baino askoz ere lan nekezagoa eta luzeagoa izango da. Donostiako Informatika Fakultatean badabil talde bat ingelesetik euskarara itzuliko duen programa bat garatzeko ahalegintetan, baina oraingoan merkatuan ez dago euskarara itzuliko duen programa automatikorik.

Bada, ordea, beste tresna bat hain ezaguna edo hasiera batean behintzat hain deigarria egiten ez dena, baina euskal itzultzaileontzat erabilgarriagoa izan daitekeena. Eta hori **itzulpen-memoria** da. Itzulpen-memoria egiteko hainbat aplikazio daude merkatuan salgai: *Trados*, *Déjà Vu*, *Transit...* HAEEko Itzultzaile Zerbitzu Ofizialean hasiak gara TRADOS etxeko itzulpen-memoriarekin lanean. Urte hasieran itzultzaile guztioi jarri ziguten aplikazioa.

## ZER DA ITZULPEN-MEMORIA?

Itzulpen-memoria aurretik itzulita dauden testuak datu-base batean gordetzeko aukera ematen duen aplikazioa da. Hori ez da berrikuntza, eskuarki erabiltzen dugun testu-prozesadoreak ere, Word-ek alegia, itzulpenak eta jatorrizko testuak gordetzeko aukera ematen du eta; baita direktorioen bidez erosen egiten zaigun moduan antolatzeko eta bilaketak egiteko ere. Baina itzulpen-memoriak itzulitako testuak segmentuka parekatuta gordetzeko aukera ematen du eta, horrela, **bi hizkuntzatan dauden segmentu-pareen biltegia** sor daiteke. Segmentu horiek normalean esaldiak izaten dira baina paragrafoak ere izan daitezke, nahi izanez gero. Itzulpen-memoriaren aplikazioak eskaintzen duen abantaila nagusia da **bilaketak egiteko modua askoz ere arinagoa** dela eta askoz ere erabilgarriagoa itzultzaileon eguneroko lanerako. Gainera, berdin-berdinak diren esaldiez gain, antzekoak bilatzeko aukera ere ematen du.

## ZER EGITEN DUTE ITZULPEN-MEMORIEK?

Eguneroko jardunean itzuli beharreko **esaldi berri bati ekiten diogunean bilaketa azkarra egiten du memorian ea lehendik itzulita dagoen, esaldi hori bera nahiz antzekoren bat**. Horrekin batera, terminologiako datu-basean begiratzen du itzuli beharreko esaldi horretako hitzak edo terminoak azaltzen diren. Bilaketa bikoitz horren emaitzak pantailan azaltzen dizkigu, nahiko azkar, eta erraz kopiatu ditzakegu komeni zaigun lekuan (aukera daukagu automatikoki egiteko nahiz tekla bati sakatuta egiteko). Kontsultak askoz azkarra go egiteko sistema da azken finean.

Esaldiak ezezik **dokumentu osoak ere aztertu daitezke**. Itzulpen-memoriaren aplikazioak aukera ematen du dokumentu oso bat aztertu eta memorian dagoeneko zenbat dagoen itzulita ikusteko. Azterketa hori egiteko dokumentua ireki beharrik ere ez dago, arin-arin egiten du, eta ondoren estatistika-datu batzuk ematen dizkigu.

Aurretik itzulitako testuak esaldika banatu eta jatorrizkoa itzulpena ondoan duela gordetzea interesgarria da itzuli beharreko testu-motak berdinsuak edo arlo berekoak direnean.



Administrazioko testuetan gauza asko izaten dira maiz samar errepikatzen direnak eta, horrenbestez, itzulpen-memoria bezalako aplikazio bat egokia izaten da administrazioko itzultzaileen-tzat. Materialak, jakina, formatu informatikoan egon behar du baliagarria izan dadin.

### **NOLA LAGUNDU DIEZAIROKE ITZULPEN-MEMORIAK ITZULTZAILEARI?**

Itzultzaile Zerbitzu Ofizialean (IZO) hamabosten bat itzultzailek jarduten dugu lanean. Itzultzeko testu bat heltzen den aldioro ez da erraza izaten horren antzeko zerbait itzulita ote dagoen konprobatzea, aurreko urtean antzekorik itzuli ote zen, edo beste testu batean oinarritutako testua den eta testu hori dagoeneko itzulita dagoen jakitea, bidaltzaileak jakinarazten ez badigu. Izan ere, izaten dira urtero errepikatzen diren deialdiak, dekretuak eta ebazpenak, behar bada **urte batetik bestera testuaren erdia baino aldatzen ez dutenak**. Baina guk dena kontrolatzen ez dugunez, gerta daiteke konturatu ez eta aurreko urtean itzulita dagoen hori berriro ere itzultzeari ekitea. Berez ez da gauza txarra testu bat itzultzaile bakar batek bere osotasunean itzultzea. Testua homogeneousagoa izaten da itzultzaile bakar batek itzuli duenean esku aniztatetik pasa denean baino. Baina itzultzeko testua bidaltzen duenak ia beti presa izaten du, askotan lanez gainezka egoten gara, eta ezin dugu ibili erabilgarri gerta dakigukenean materiala alferrik galtzen eta behin eta berriz lan bera egiten.

Sarri gertatzen zaigu, baita ere, **itzulitako testu bati aldaketak** sartzea. Testu bat bidaltzen digute itzultzeko, itzultzen dugu eta eskatu digunari bidaltzen diogu gure egitekoak bukatu direlakoan. Baina zenbaitetan gure lana ez da oraindik bukatu. Egun batzuen edo aste batzuen buruan berriro etorriko zaigu testu hori bera aldaketa batzuk egin dizkiotela, ez direla gehiegi, eta ordu-betean aldaketa horiek itzuli beharra dauzkagula esanez, dokumentua norbaitek izenpetu behar duelako edo Legebiltzarrean aurkeztu behar dutelako, edo auskalo zergatik. Azken orduko aldaketak eguneroko ogia izaten dira administrazioan. Kasurik

onenean bidaltzaileak markatuko dizkigu aldaketak. Baina zerbait markatzea ahaztu baldin bazaio? Seguru aski bera ere presaka ibiliko zen testu zaharra eta berria alderatzen. Eta aldaketak markatu gabe baldin badaude? Eta testua luze samarra baldin bada? Testu zaharra eta berria alderatzeak denbora eskatzen du. Zer egin dezake itzulpen-memoria batek kasu horretan?

Testu zaharra itzulpen-memorian jasota baldin badaukagu, zer dagoen itzulita bilatu eta itzulita dagoena, berdin-berdina izan nahiz antzekoa, Word-eko dokumentuan jartzeko aginduko diogu. Esaldi berdin-berdinak kolore batean jarriko ditu eta antzekoak beste kolore batean, erraz bereizteko moduan. Agindutako guztia nahiko azkar egingo du memoriaren aplikazioak. Ondoren, Word dokumentuan sartu eta berehala ikusiko dugu non egon diren aldaketak (antzekoak diren esaldiak aldaketaren bat izan dutela esan nahiko du) eta zer erantsi zaion (itzuli gabe ageri zaiguna).

**Hitzak bilatzen ere lagun dezake.** Gerta daiteke itzuli beharreko esaldi batentzat ordainik ez egotea itzulpen-memorian baina esaldi horretan azaltzen den hitz bat, edo hitz multzo bat, dagoeneko itzulita egon behar duen susmoa izatea, erakunderen baten izena delako, duela denbora bat antolatutako ikastaroren baten izenburua delako edo noizbait nola itzuli pentsatzen buru haustek izan genituela gogoratu arren, nola itzuli genuen ahaztu egin zaigulako. Horrelakoetan dagokion hitza edo hitz multzoa aurreratu eta itzulpen-memoriari galdetuko diogu ea hori gordeta daukan. Eta itzulpen-memoriak hitz edo hitz multzo hori jasota daukaten esaldien zerrenda emango digu, jatorrizko esaldia alboan itzulpena duela, beti bezala.

### **NOLA EGITEN DA ITZULPEN-MEMORIA?**

Itzulpen-memoriako aplikazioak hutsik saltzen dira. Erosi berri-tan ez dira oso erabilgarriak. Erabilgarriak izan daitezten elikatu egin behar dira, informazioa sartu. Telefono-agenda bat erosten dugunean bezala da. Agendak laukitxo txukunez osatutako orrialdeak izaten ditu, alfabetoaren arabera ordenatuta, baina orrialde polit horiek betetzen ez baditugu alfer-alferrik izango dugu, munduko agendarik dotoreena izanda ere.

Bi modu nagusi daude itzulpen-memoria elikatzeko.

**Eguneroko lanaren bitartez:** Word-en itzultzen ari garela, aukera daukagu aparteko ahalegin berezirik egin gabe itzultzen ari garen guztia memoriara sartzeko. Horrek aldatu egiten du zertxobait lan egiteko modua itzultzailearentzat eta batzuetan erritmoa moteldu ere egin dezake, ordenadorea behar bezain sendoa ez baldin bada. Baina itzulpen-memoria eta Word biak batera ditugula lan egiten ikasi ondoren eta ordenadore ona dugula ez da kostatzen testu bat itzuli ahala memoriara sartzeko.

**Lerrokatazaille automatikoaren bitartez:** eguneroko lanaren bitartez memoria elikatzeko denbora behar da. Itzulpen zerbitzu eta sailetan itzulpen-memoriarako egokia izan daitekeen material ugari izaten da normalean, aurretik, behar bada urte askotan zehar, itzulitako materiala, alegia. Itzulpen-memorien programek eskaintzen dute aplikazio bat, lerrokatazaillea deritzana; itzulitako material hori nahiko modu automatikoan parekatu eta itzulpen-memoriara sartu ahal izateko. Lerrokatazaille automatikoak jatorrizko testua eta itzulpena hartu eta nahiko modu automatikoan esaldiz esaldi parekatu egiten ditu. Horretarako jatorrizko testua eta itzulpena, bakoitza dokumentu banatan, hartu behar ditugu eta lerrokatzeko agindu. Lerrokatazaille automatikoak, dokumentuen formatua eta beste zenbait ezaugarri kontuan har-



tuta esaldi bikoteak sortzen ditu, jatorrizko esaldia eta itzulpena, eta itzulpen-memoriara sartzeko prest dagoen fitxategi bat sortu esaldi bikote horiekin. Baina lerrokatzaile automatikoak egindako lana berrikusi egin behar da, sortu dituen esaldi bikote horiek ondo dauden edo ez egiaztatzeko, ondo dagoena memoriara gordetzeko agindu, eta gaizki dagoena zuzendu edo ezabatu. Komenigarria da itzulpen-memoria erabiltzen hasi aurretik lerrokatzailearen bidez etorkizunean erabilgarria izan dezakegun materiala segmentuetan parekatu eta gero memoria betetzea. Lerrokatzaile automatikoak egindako guztia berrikusi egin behar da, lana ematen du baina, jakina, lerrokatzailerik gabe baino arinago eta erosoago egiten da memoria elikatzeke lana eta itzul-tzaileentzat errazagoa izaten da elikatuta dagoen memoria batekin lanean hastean hutsik dagoen batekin hastea baino, dagoeneko materiala sartuta daukan memoria bat edukita baliagarria izan daitekeela ikusi egiten da eta.


Testu egokiak sartzea komeni da, ondo eginda dauden itzulpenak edo behintzat baliagarriak izan daitezkeenak. Euskararen kasuan kontuan hartu behar da administrazio-hizkera nahiko gauza berria dela baina urte gutxi horietan aldaketa nabarmenak izan dituela. Orain dela urte gutxi euskara administratiboan erabiltzen ziren estiloak eta hizkuntza-egiturek zerikusi gutxi dute orain erabiltzen direnekin. HAEEK administrazio-hizkera argi goa erabiltzearen aldeko apustua egin du azken urteotan eta, jakina, itzultzaileongan ere izan du eragina joera horrek. Euskarako administrazio-hizkera jaioberria zenezan gaztelaniatik euskarara itzulitako testuek menpekotasun handiegia zuten jatorrizko testuarekiko. Ez ginen ausartzen hizkuntza egitura traketsak apurtzen, ez esaldi luzeegiak eteten ere. Horrela, gaztelaniaz pedanteak gelditzen ziren testuak euskaraz ulertezinak izaten ziren. Saiatu gara pixkanaka-pixkanaka gehiegizko menpekotasun formal hori hausten eta gaur egun testuaren edukari ematen diogu garrantzia, formari baino gehiago, hizkuntza-egiturak aldatuz eta esaldiak laburtuz.

Esaldiei gagozkiela lehenago esan dut testuak esalditan banatuta gordetzen ditugula memorian eta orain berriz gaztelaniazko esaldiak askotan eten egiten ditugula eta euskarazko ordaina esaldi bat baino gehiagotan ematen dugula. IZOko itzulpen-memoria gaztelaniatik euskarara egindako itzulpenez osatuta dago, oraingoz, eta gaztelaniazko esaldia da kontuan hartzen dena. Askotan euskarazko ordainak bi, hiru esaldi edo gehiago izaten ditu, baina hori ez da arazo izaten memorian gordetzeko.

## ZEIN ALDAKETA DAKARZKIO ITZULPEN-MEMORIAK ITZULTZAILEAREN LAN EGITEKO MODUARI?

**Aplikazio berri bat.** Itzultzaileak Word-ekin segitzen du lanean baina aplikazio berri bat dauka erantsita eta horrek  **nolabait aldatu egiten du lan egiteko modua**. Gainera zenbat eta aplikazio gehiago eduki orduan eta **ordenadore hobea** behar da. Itzulpen-memoria hazten doan neurrian ordenadorearen neurriak ere handiagoa behar du.

Guk daukagun memoriaren saltzaileek gomendatzen dute Pentium prozesadorea duen PCa edukitzea, baina Pentium II edo goragokoa gomendatzen dute. Era berean, RAM memoriak (*random access memory*– lanean ari den unean bertako datuak irakurri, idatzi eta gordetzen uzten duen memoria) 32 megabyte-koa behar du gutxienez, baina hobe da 64 megabyte-koa edukitzea. Eta, azkenik, Word 6.0 edo goragoko testu-prozesadorea behar da. Horrezaz gain, 17 hazbeteko pantaila behintzat behar dela



diote, eta hobe 19koa bada, izan ere testu-prozesadorea eta memoriaren aplikazioa biak batera irekita eduki ahal izateko pantaila handia behar da eta. Garrantzitsua da informatikako baliabide onak edukitzea, bestela aplikazio berriarekin lanean hasi orduko ordenadorea blokeatu, RAM memoriarik gabe gelditu, disko gogorra bete eta lana aurreratu beharrean oztopatu egiten digu eta.

Itzulpen-memoriarekin lan egiterakoan gerta daiteke hainbat itzulpen eta estilo ezberdinetako esaldiez osatutako itzulpen bat ateratzea. Itzulpenari dagokion fasea azkartu egiten da baina, horrelakoetan **zuzenketako fasea luzeagoa** izango da. Izan ere, nahiz eta memorian dagoena itzulpen ontzat jo itzulpenak beti berrikusi behar dira. Estiloa aldatu egiten da erakunde batetik bestera eta itzultzaile batetik bestera ere alda daiteke. Horri beste arazo bat gehitu behar zaio: terminologia oraindik ez dago bateratua. Eta aldaketak ez dira erakunde batetik bestera izaten soilik, baita erakunde beraren barruan urte batetik bestera ere. Administrazio-prozeduraren legeak zortzi urte baino ez ditu baina hainbat izen ezagutu ditu Eusko Jaurlaritza barruan. Batzuetan zuzenketa-faseak denbora luzea eskatuko digu, testu batek koherentsia gorde behar du eta. *Artículo* itzultzeko toki batean “artikulu” azaldu bada, beste toki batean ezin da “atal” azaldu.

Baina, bestalde, itzulpen-memoria bera lagungarria izan daiteke terminologia bateratzeko geratzen zaigun bidea egiteko. Gainera hitzak dagokion testuinguruan begiratzeko aukera ematen digu, gordetzen duena esaldiak baitira, eta hori askotan hiztegian begiratzeko baino lagungarriagoa izaten da egokiena den hitza aukeratzeko orduan.

**Maite Imaz**

**HAEEKo Itzultzaile Zerbitzu Ofizialeko itzultzailea**

# Nahi nuena baino merkeagoa, baina nahi nuen baino garestiagoa

- Auto bat erosi dut.
- Bai? Eta... merkea ala garestia?
- Nahi nuena baino merkeagoa, baina nahi nuen baino garestiagoa.
- Nolatan, bada? Esan duzuna okerra da: merkeagoa edo garestiagoa, bai, baina biak batera ezin, ezta?
- Bada, ez: badago desberdintasun txiki bat bi esaldien artean.
- Ah!
- Horixe bera; zuk zeuk esan duzuna, hain zuzen ere.
- Zer esan dut nik, bada?
- A letra: aditz laguntzaileari itsatsita dagoena.
- Oraindik ere ez dut ulertzen.
- Irakurri, orduan, ondoko lerroak, ea buruhaustea argitzen duzun.

## Aditza konparazio-egituretan

Perpaus konparatiboak osatzean, bi modutan erabil dezakegu aditza:

Aditza jokatu gabe: **Nahi** baino gehiago ordaindu dut autoa erosteko.

Aditza jokatuta: **Nahi nuen** baino gehiago ordaindu dut autoa erosteko.

Jokatu gabe egiten badugu, bere horretan utziko dugu aditza, laguntzailearik eta markarik gabe. Aditza jokatu gero, ordea, **-eN** menderagailua erantsi behar diogu aditz laguntzaileari: *Uste **nuen** baino errazago egin nuen azterketa.*  
*Eman **zioten** adina jan zuen afarian.*  
*Esan **dizudan** bezala egin behar duzu lana.*  
*Esan **zidaten** bezain interesgarria zen liburua.*

Baina, adi! **-eN** esan dugu, eta ez **-eNA**, nahiz eta gero eta sarriago azaltzen diren azkeneko forma hori duten konparazioak. Egia da bizkaiera zaharrek testuetan guztiz arrunta dela **-eNA** **LEGEZ** egitura. Hala ere, oraingo idazle gehienek **-A** gabe emango lukete egitura bera.

## -eNA okerra

Izan ere, Euskaltzaindiaren esanetan, jokabide berri hori nekez justifikatzen da gramatikaren ikuspegitik, eta, beraz, aski baztertzekoa da. Beraz, saihestu egin beharko genituzke ondoko esaldiak eta euren modukoak:

\**Uste **nuena** baino errazago egin nuen azterketa.*

\**Eman **ziotena** adina jan zuen afarian.*

\**Esan **dizudana** bezala egin behar duzu lana.*

\**Esan **zidatena** bezain interesgarria zen liburua.*

Hortaz, **-eN** atzikia gomendatzen du Euskaltzaindiak perpaus horietan guztietan... **zenbait esamoldetan izan ezik**. Izenburuko esaldia adibide hartuta azalduko dugu **-eNA** noiz den zilegi.

Har dezagun lehenengo zatia: **nahi nuena baino merkeagoa**. Nik auto bat erosi nahi nuen baina, auto hori garestiegia zenez, auto merkeagoa erosi behar izan dut. Horregatik, **nahi nuen autoA** baino merkeagoa erosi dut, edo **nahi nuena** baino merkeagoa erosi dut. Hots, bi auto daude tartean: nahi nuenA eta erosi dudana.

Har dezagun orain bigarren zatia: **nahi nuen baino garestia- goa**. Autoa erosteko, ez nuen diru gehiegi ordaindu nahi, eta, hartara, diru bat nuen aurreikusita; azkenean, ordea, hori baino gehiago ordaindu behar izan dut. Horregatik, **nahi nuen** baino garestiagoa da. Auto bakarra dugu, eta merkea izatea nahi nuen.

## Erlatibo jokatugabea eta konparazioa: -TAKO(A) BAINO

Arazo bera izaten da erlatibo jokatugabea duten egituretan, hau da, **-TAKO** eta antzekoetan. Antza denez, gero eta gehiago erabiltzen dira **-TAKOA BAINO** moduko esaldiak, baina, hala ere, Euskaltzaindiak jatorragotzat jotzen du aditza jokatuta **-eN BAINO** duen forma. Honako hauek, ordea, ez dira gomendagarriak:

– \**Eskertuko nioke **erakutsitakoa** baino errespetu gehiago izatea.*

– \**Aurreikusitakoa baino geroago heldu da helmugara.*

Egia da lehenengo zilegi dela, baina, hala ere, hauxe gomendatzen dute:

*Eskertuko nioke erakutsi duen baino errespetu gehiago izatea.*

Bigarrena, ostera, okerra da. Erreparatu, bestela, azpian duen egiturari, lehenago azaldu dugunaren arabera: *Aurreikusitako ZERBAIT/NORBAIT baino geroago heldu da helmugara.* Bistan da ez dela hori eman nahi dugun adiera, ez baitugu beste inor edo ezer aurreikusi. Hortaz, hauxe da modu egoki eta jatorra:

*Aurreikusi zen baino geroago heldu da helmugara.*

## Onezko damua eta ontzeko asmoa

Ikusi dugunez, gehienetan bi egiturak, **-eN** eta **-eNA** zuzenak dira, baina kontuz! Erabat esanahi desberdina dute; horregatik, ondo bereizi egin beharko ditugu, nahi **dugun** baino hobeto idazteko eta egiten **ditugunak** baino testu zuzenagoak sortzeko.

**Aitor Gorostiza**  
**HAEEko teknikaria**



# Arritako Amabirjinaren desagertpena

**J**ende multzoa zegoen Orbizarretan, Gaztelugatxerako bidezidorra hasi orduko dagoen zelaian. San Inazio eguna, beraz uztailaren 31 zen. Baina minutu batzuk lehenago patxadaz eta alaitasunean egon ginenok, erabat aztoratuta, sulebata, azeleraturik eta aldarrika hasi ginen. Arrazoa, ertzainen eta Bermeoko Udaltzaingoaren hainbat kotxe agertu zirela bertan. Kotxeetatik jaitsi bezain laster galderak egiten hasi zitzaizkigun batak eta besteak.

- Non dago Amabirjina?
- Nora eraman duzue?
- Zergatik lapurtu?

Han geundenok ez genuen ulertzen zertaz ari ziren. Amabirjina lapurtu? Guk eraman genuela Birjina? Nora baina? Gu ere zain geunden Amabirjina Arritakoa noiz iritsiko Orbizarretara. Beranduak ziren, bai, eguerdiko hamabiak, hala ere ez horrenbeste horrelako usobilloa armatzeko. Baina bazegoen arrazoirik. Izan ere, duela hiruzpalau urte, gertakizun harrigarri bat gertatu zen Orbizarretan.

Gaztelugatxeko San Juanera urtean hiru aldiz joaten da jendea, bereziki, erromes. Ekainaren 24an, San Juan eguna; abuztuaren 29an, San Juan Degoilatuaren eguna, eta uztailaren 31n San Inazio egunean. Aurreko bi egunetan Bermeokoak eta Bakiokoak joaten dira gehienbat, baina San Inazio egunean arritatarren eguna izaten da. Izan ere, urtero, Arritatik prozesio edo ibilaldi bitxi bat egiten dute. Dena den, bermeotarrak ere hurbiltzen dira, bereziki emakumeak, eta hauen artean gehienak arrantzale girokoak, San Juan eta Amabirjinari, biei batera, euren erreguak eta eskariak egiteko aukera izaten dutelako.

Arritako Amabirjinak, Gaztelugatxeko San Juani bisitatxo bat egiten dio egun horretan. Arritatarrek, Amabirjina lepoan hartu eta goizean goiz, irtetzen dira Arritatik goizeko hamaikak inguruan San Juanera heltzeko.

Hala ere, iristeko ordua gutxiena da, hori bidaztien ibilera azkarra edo geldoaren menpe izaten delako, baita eguraldiari dagokionaren arabera ere. Hiruzpalau egotaldi egiten dituzte bidean zehar, batez ere taberna dagoen tokietan, esaterako Larraurin (Bidebietan) eta Mañun (Sollube). Ogitartekoak jan, ardoa edan... Hurrengo eta azkena izaten da luzeena, zeren Orbizarretaraino ez dago tabernarik.

Urte horretan ere, Orbizarretara iritsi zirenean, beti bezala horra heltzean, Birjinaren irudia anda gainean kanpoan utzita, tabernara sartu ziren. Denbora ez luzea igaro ondoren, bideari jarraitzeko asmotan tabernatik iretzean ustekabe galanta hartu zuten, Amabirjina desagertu zenaz aurkitu ziren. Batari eta besteari galdetu arren inork ez zien arrazoirik eman. Ertzainei deitu beharra zegoela iruditu zitzaizen eta horrela egiten zuten. Iritsi zen ertzainen dotazioa, baita

Bermeoko udaltzainak ere, baina hauek ere ez zuten ezer argitu.

Orduak pasatu ahala, gero eta urduriago jarri ziren arritatarrek. Hara eta hona saiatu ziren guztiak, nolabaiteko informazioa lortu ahal izateko. Halako baten, mutil koskor batek Amabirjina emakume batzuek eraman zutela, Bermeoko bidea hartuz, adierazi zien.

Ertzainek eta udaltzainek, orduan, Bermeorako bidea hartu zuten, baina laster bueltatu ziren han ere ez baitzuten aurkitu Amabirjinaren arrastorik. Halan da ze, San Juanera igotzea erabaki zuten, begiratu barik geratzen zen leku bakarra baitzen. Ez zen atsegina ez, egiten zuen beroaz hara igotzea, baina “betebeharra bete behar” eta hara joan ziren ertzainak, udaltzainak, arritatarrek eta han zeuden guztiak, Gaztelugatxerako dagoen berebilbide berriatik batzuk, bidezidorretik besteak.

Eta aurkitu zuten Amabirjina. Han zegoen San Juaneko elizatoaren erdian, ia eliza bete emakume, inguruan aurkitu

zituzten lorez apaunduriko irudiari zekizkiten elizako kanta guztiak abesten.

Erabat harrিতuta geratu ziren ikuskizun haren aurrean. Ertzainek eta udaltzainek, euren zeregina ondo betetzeko, kontuak eta arrazoiak eskatzen hasi ziren; ea zergatik egin zuten galdetzerakoan, Amabirjina koitadea bakarrik egon zelako egin zutela erantzun zuten emakumeek.

- Baina zuek ez al dakizue Amabirjina lapurtzea delittoa dela? –ertzain batek haserre.
- Eta ez da delito handiagoa Amabirjina gizajea desabandonata uztea eta tabernara ardoak edatera joatea? –erantzun zion emakume batek sulfuratuta

Ez zuen inork barbarik luzatu. Emakumeek, Amabirjina aurkitu zuten lekura eramatea euren kargu geratzen zela adierazterakoan, ertzainak, udaltzainak eta arritatarrek ez ziren ausartu kontrakorik argudiatzen. Eta emakumeek hartu berriro lepoan irudia eta gorantz egin zuten bidezidor neketsutik kanta eta kanta, bidean aurkitzen zituzten loretxoez ia irudia estalita.

Orbizarretara iritsi zirenean han utzi zieten arritatarrei Amabirjina. Honek, arrain asko harrapatzeko emakumeen erreguak entzun zituen ala ez ezin jakin, baina haiek Amabirjinarenganako fede zintzoa adierazi zutela bai.

Geroztik, arritatarrek, Orbizarretara heltzen direnean ez dute Amabirjina bakarrik uzten. Batzuk tabernara sartzen diren bitartean, besteak han geratzen dira goardia egiten euren Amatoxa bateren batzuek bahitu gabe.

**“Iristeko ordua gutxiena da, hori bidaztien ibilera azkarra edo geldoaren menpe izaten delako”**

**Begoña Bilbao**  
Idazlea

# Euskal itzulpenen luze-laburrak

Itzulpengintzaren arloan bete-beteen hasi aurretik, hainbeste azterketa egin nituen, han-hemenka, administrazioa sartzeko. Horieta batean, memoriak huts egiten ez badit behintzat, “El lazarrillo de Tormes” obraren pasarte bat jarri zidaten itzulgai. Sasoi hartan, oso lotuta ibiltzen nintzen jatorrizko formarekin, eta jatorrizko testuan perpaus luzeak non, han ere euskal esaldi luzeak. Erlatiboz eta konpletiboz jositako esaldiak ziren; gogoan dut. Esan bezala, forma nire lokarri zenez, gaztelaniaz nola, euskaraz hala. Eta jakina; ez nuen gainditu. A ze ustekabea! Baina handik, zeharka bada ere, zerbait ikasi nuen: “Edortatxu, argi ibili esaldien luzerarekin”. Harrezkero, bai nire esperientziak, bai irakurritako eta entzundako aholkuak kontuan hartuta, bestela egiten saiatzen naiz. Lortu al dut?

Hizkuntzek planteatzen dituzten arazoei egunero-egunero erantzun behar dieten batzuk kazetariak dira. Beren hizkerako estilo-liburu gehienetan altxo bat eskaintzen diote esaldien luzerari. Artikulu honetan, horrelako liburuetako zenbait aipamenez baliatu nahi dut. Inork esango dit, agian, kazetaritza-hizkera eta administrazio-hizkera ezberdinak direla, eta ezin direla parekatu. Eztabaidak eztabaida, nik zera esan nahi dut: egunkariak aurre egin behar diote komunikazioari, eta lortzen ez badute alferrikakoak izango dira beste hainbeste ahalegin, inork irakurriko ez dituelako. Guk ere erronka bera dugu helmuga. Ikus ditzagun, bada, zenbait estilo-libururen aipamenak:

EL PAIS: “*Esaldiek laburrak izan behar dute, eta gehienez ere 20 hitz. Subjektua, aditza eta predikatua urrezko arauak dira. Dena dela, komeni da esaldien eta lerroaldean luzera eta egitura aldatzea: interesari eusteko modu bat da. (...). Egitura bera behin eta berriro erabiltzeak irakurlea asperrarazi dezake.*”

ABC: “*Irakurgarritasuna eta memoria aztertzen dituzten esperientzia batzuen arabera, luzera ertaineko esaldi batean (20-30 hitz), irakurleak hobeto gordetzen du memorian lehenengo erdia bigarrena baino. Esaldiak 40 hitz baino gehiago baditu, esaldiaren zati handi bat, normalean, ez da memorian gordetzen.*”

Bi aipamen garrantzitsu, nire ustez. Lerroalde biak ondo ulertzeko, kontuan har bedi gaztelaniarako idatzita daudela, eta, hortaz, preposizioak dituen hizkuntza batenak direla. Izan ere, preposizioak testua antolatzen laguntzeaz gain, bide-seinale moduko zerbait ere badira. Sistema horri esker, gaztelaniazko eta frantsesezko esaldiak errazago luza daitezke hizkuntza aglutinanteetan baino (gurean, adibidez). Preposizioek luzatzeko aukera ematen badute ere, bi egunkari horiek mugaren

bat edo beste jartzen diote luzerari. Zer ez dugu egin behar guk, bada, preposizioen ordez deklinabide-markak erabiltzen dituen hizkuntza batean?

Esan bezala, gaztelaniaz, 40 hitzetik gorako esaldietan, zati bat ez ohi da gogoan hartzen. Ariketa erraz-erraz bat proposatzen dizuet. Hartu gaztelaniazko administrazio-testu bat (edozein) eta zenbatu hitz-kopurua (preposizioak izan ezik). Eta seguraski, gauza batez ohartuko gara: esaldi ulergaitzenak luzeenak dira. “Berrogei” kopuru horrek handiegia ematen badu ere, uste baino sarriagotan agertzen dira gaztelaniaz. Eta okerrera zera da: batzuetan kopuru horiek euskarara ere igarotzen direla.

Hori guztia, gaztelaniari dago-kionez. Euskararen kasuan, berriz, EUSKALDUNON EGUNKARIAren erreferentzia dugu. EGUNKARIAk, esaldien luzerari buruzko pasartean, honela dio: “*Testua arina izateko, esaldiek ez dute luzeak izan behar. Hamabost hogeit hitz artekoa neurri egokia izan daiteke*”. Kasualitatea baino gehiago da ABCren “luzera ertaineko” esaldien luzeratik (20-30) EGUNKARIAkora dagoen

aldea. Eta berriro ere diot zein den arrazoia: euskarak deklinabide-markak darabiltza eta beste egitura eta luzera batzuk hartu behar ditu oinarri.

Kontua ez da aurrerantzean zenbatzen hastea. Kontua da, gutxienez, arazoaz jabetzea; alegia, esaldi luzeek gurea bezalako hizkuntzetan ez dutela bide erraza. “15-20” kopurua egokia izanda ere, ez da lokarri mugiezintzat jo behar, makulu lagungarritzat baino. Inoiz, hori baino esaldi luzeagoak idatzi beharrean egongo gara, ezinbestez. Baina, behintzat, izan dadila barne-erritmoa dutela. Esan nahi baita, bada, litekeena dela puntutik puntura doan pasarte 40 hitzekoa edo gehiagokoa izatea, baina barruan ondo antolatzearen ondorioz (testu-antolatzaileak, anaforak, kataforak, hitz betegarririk, puntuazio-markak...), periodo laburragoko unitate gehiago sortzea puntu biren artean.

Amaitzeko, kasu berezi bat aipatu nahi dut: legeen izenak aipatzen direnean. Arestian hitz-kopuru bat proposatu dut (15-20), baina izendapen horiek sartzten direnean sarri desegiten da hitz-muga. Eta irtenbideak izan, badira, baina horiek beste baterako utziko ditut.

Ea, bada, administrazio-testuen euskal selekzioak —honelako eta bestelako lagungarrien bidez— ulergarritasunaren joko olinpikoetan parte hartzen duen hurrengo urteetan.

**Edorta España**

**HAEEko Itzultzaile Zerbitzu Ofizialeko itzultzailea**

# Hitz-sorkuntzako uste ustelak (IV)

Hizkera eta hiztegi tekniko edo espezializatuetan askotan agertzen zaigu hizkuntza-maila arazo bezala: maila jasoa behar ote den, maila estandarra aski ote den, betiere maila arruntetik ihesi. Hizkeran askotan ageri izaten da arazo hori, fraseologia bihurtutako teknikoagotzat daukatelako zenbaitek, guztiz alderantziz den arren. Berdin jazotzen da berbekin ere, estandarretik urrurago eta nahiago, hitzak potoloago eta gurago dituzte batzuek, hizkuntza-mailaren edo espezialitateko hizkuntzaren aitzakiarekin. Argitu dezagun zein hizkuntza-maila behar duen hizkera teknikoak.

## HIZKUNTZA-MAILAK

Euskaltzaindiak, burutu berri duen Hiztegi Batuan, markak jarri dizkie hitz askori erabileremua, erabilgarritasuna, euskalkia, gramatika-kategoria... eta, besteak beste, hizkuntza-maila zehazteko. Hiztegi Batuan hizkuntza-maila hauek agertzen dira (**laburdura** / esanahia / *adibidea*):

<b>Arrunt.</b>	Arrunkeria	<i>izorratu</i> (=kalte egin), <i>txorta</i> (=sexu-jarduna)
<b>Lgart.</b>	Lagunartekoa	<i>kakanarru</i> (=pertsone txikia), <i>txapeloker</i> (=guardia zibila)
<b>Beh.</b>	Behe-mailakoa	<i>apartatu</i> (=aukeratu), <i>prenda</i> (=bahia)
<b>Herr.</b>	Herri-mailakoa	<i>itxuroso</i> (=itxura onekoa), <i>seko</i> (=hilda)
<b>Tekn.</b>	Teknizismoa	<i>kalibratu</i> (=kalibrea hartu), <i>termino</i> (=teknika-hitza)
<b>Goi.</b>	Goi-mailakoa	<i>urrikaltsu</i> (=errukitsu)
<b>Jas.</b>	Jasoa	<i>itun</i> (=goibel), <i>ondamu</i> (=bekaizkeria)
<b>Liter.</b>	Literatura	<i>gosebera</i> (=gosezia), <i>harabartu</i> (=harrek jan)

Erraz ikusten da horietako bakoitzak gutxi gorabehera zer esan nahi duen. Hala ere, beharbada, goi-mailakoa, jasoa eta literatura markak, hirurak bakar batera biltzea komeni dela deritzot, bereiztea oso zaila da eta (bitxia da goi-mailako hitz bakarra egotea Hiztegi Batuan); horrela, literatura marka, erabileremua adierazteko bakarrik geratuko litzateke (**suspense** hitzaren kasuan bezalaxe), orain nahasi erabiltzen baita: batzuetan, literatura-mailako hitza dela adierazteko eta, besteetan, literatura erabileremuko hitza dela aditzera emateko.

Horrelako markarik ez daukaten hitzak, hau da, hizkuntza-maila zehaztuta ez daukatenak, hizkuntza estandarrekoak dira. Hiztegiko hitzik gehienek ez daukate maila-markarik, beraz hizkera estandarrean ahoz nahiz idatziz erabiltzekoak dira, eta hiztegi teknikoak terminoak horien artean bilatu behar ditugu batik bat. Kontuan izan beharko dira beste datu batzuk: erabileremua (administrazioa, biologia, ekonomia...), euskalkia (gipuzkera, Hegoaldea, zuberera...), erabilgarritasuna (adierazkorra, gutxi erabilia, zaharkitua...), gramatika-kategoria edo funtzioa (adizlaguna, izenondoa, predikatua...), hobespen edo gaitzespena (forma hobetsia, forma okerra edo saihestekoa, pareko forma...) eta abar. Ohar horiek guztiok datu interesgarriak ematen dizkigute, hitz bat zein testuingurutan erabil dezakegun eta zeinetan ez jakiteko, eta erabiltzekotan ere noiz eta nola. Zenbat eta marka murriztaile gutxiago izan, orduan eta erabilgarriagoa izango da hitz bat, maila teknikoan.

## EPAIKETA, JUDIZIOA, JUIZIOA, JUJAMENDUA

Askotan gertatzen da euskaraz hitz bat baino gehiago izatea kontzeptu bat izendatzeko. Horrelakoetan kontu egin behar da, ea bene-benetan sinonimo osoak diren ala, antzeko hitzak izan arren, maila teknikoan bereiztu egiten diren, nahiz eta maila arruntan edo espezializatu gabeen bereizketarik egin ez. Sinonimo osoa denean estandarrena hautatuko dugu aukeran: hizkuntza estandarretik hurbilen dagoe-na, hau da, markatua ez den hitza.

Adibidez, Euskaltzaindiak Hiztegi Batuan hauxe jaso du:

**epaiketa**

**judizio** *Jas.* ‘epaiketa’

**juizio** *Heg.* ‘epaiketa’

**jujamendu** *Ipar.* ‘epaiketa’

Hiztegi Batuko datuak hartuta, argi ikusten dugu, alde batetik, ‘epaiketa’ dela termino estandarra, neutroa, markarik gabea eta, ondorioz, euskara batu estandar teknikoan ahoz nahiz idatziz erabili beharrekoa. Besteek markak dauzkate, eta, gainera, ‘epaiketa’ hitz neutroaren aipamena daukate: ez alferrik. Lau hitzetatik bik euskalki-marka daukate: ‘juizio’ Hegoaldekoa da soilik eta ‘jujamendu’ Iparraldekoa baino ez. Hortaz, muga horrekin erabiltzekoak dira. Kasu bietan diosku Hiztegi Batuak ‘epaiketa’ dela esanahia. Beste biek ez daukate euskalki-markarik, baina batek mailaren marka dauka: ‘judizio’ jasoa da (Jainkoaren judizio jeneralaren konnotazioak ditu, eta hori esateko erabili da batik bat lehenengoz erabili zenetik agerraldi gehienetan). Horiek hirurak hitz markatuak dira, beraz. Hiruretan ematen zaigu ‘epaiketa’ hitza ordain neutro gisa: markatu gabea. Horixe da hiztegi teknikoan euskara estandarrean erabili beharrekoa, zuzenbideko hizkera eta hiztegian gainerako hizkera eta hiztegi teknikoetan bezala, jasotasunik ez delako behar zehaztasuna baino.

Terminoak termino dira, eta horietan ez dago aldatzen ibiltzerik, zehaztasun-beharrak ez du aldaketetan ibiltzeko aukerarik ematen. Hala ere, teknizismoak, komunikazio-egoeraren arabera, azaldu eta argitu beharra egon daiteke, eta testuan bertan argitu eta azalduko ditugu behar denean. Baina termino horiek ez dira hizkuntza jasokoak ez herrikoikoak, estandarrekoak baizik; delako espezialitateko hiztegi estandarra osatzen dute, hizkuntza teknikoak ez baitu beste mailarik onartzen.

**Jon Agirre Garai**

**HAEEko Itzultzaile Zerbitzu Ofizialeko burua**

# Nolako izan behar du Historiaren irakaskuntzak Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan?



**Lola Valverde**  
EHUko Historiako irakaslea

Humanitateen irakaskuntzak eta bere inguruan sortu den polemikak bi maila ditu, oso ezberdinak. Eta esan behar dut, eztabaida hori bakar-bakarrik pedagogikoa balitz, aspaldi egongo litzatekeela konponduta. Egia da gizartea

azkar eta sakon aldatzen ari dela, iraultza teknologiko eta zientifikoari lotuta; beraz, eskolak etengabe egokitzeko eta garatzeko beharra du. Baina humanitateen eztabaida benetan inguratzen duena politika da; horregatik “beste” humanitateak bazter batean gelditu dira, eta Historiaren irakaskuntza ageri zaigu erreformaren helburu bakarria balitz bezala.

1997. urtean, Esperanza Agirrek, Hezkuntzako orduko ministroak aurkeztutako erreformaren proiektua atzera bota zuen Diputatuen Kongresuak ustekabea. Egoerari aurre egiteko Humanitateen Erreformatako batzordea sortu zuten; bertan ziren autonomietako hezkuntzako ordezkariak, eta baita Hezkuntza Ministeriokoak ere. Batzorde hori, berez, bideratzaile eta aholku-emaile baino ez zen, baina haren emaitzen eta ondorioen nondik-norakoaren susmoa nonbait hartuta, Historiaren Erret Akademiak gaiaren gaineko txosten bat argitaratu zuen. Txosten desegokia benetan, izan ere, gai politikoak jorratzen zituen zuzenean, eta salaketa larri eta faltsuak egiten zituen, inongo frogarik aurkeztu gabe. Horren helburua garbi zegoen: bidea zabaltzea heltzear zegoen erreformari.

Antolaketa zentralistatik autonomien deszentralizaziora iragan izanak aukera eman du nazionalitateen Historiaren ikerketak eta irakaskuntzak loratzeko; baita eskualde eta herrietako historiak ere. Loratze hori, gainera, bat dator azken hamarkadetakorrante historiografiko berriekin. Pedagogia berriak ere ikerketa mota horiek sustatzen ditu. Izan ere, badi-rudi ikasle gazteek errazago bereganatzen dutela ezagutza historiko eta geografikoa, baldin eta tokian-tokikoa ikasten hasten badira.

Horren guztiaren ondorioz, Gobernuak eta hura sostengatzen duen alderdiak sumatu du Espainiaren ideiarekin desintegrazioa gertatzeko arriskua egon daitekeela. Gobernuak beldur da gazteek ez ote duten galduko Espainia subjektu politikoaren iradarketa hori, mendeetan eragile izan den hori berori. Horiek dira eztabaidaren ardatz nagusiak. Izan dira, bai, gehiegikeriak, baina horien aurrean galdera hau egiten dugu: Ministerioak ezarriko digu zein den irakatsi beharreko historia bakarria eta benetakoa?

**Jose Maria Portillo**  
EHUko Garaiko Historiako Departamentuko irakaslea



Historiaren irakaskuntzan eragina izango duen edozein aldaketaren aurrean ez da harriztekoa legegileek edo araugileek erantzun politikoa ematea berehala. Horren arrazoia erraza da: matematikak ez bezala, historiak baditu norberaren herritartasuna ulertarazten laguntzen diguten eduki batzuk. Herritartasuna eraginkorra da esparru politiko jakinetan; horregatik, garrantzitsua da, esparru horretako prestakuntza historikoa ulertzeko eta interpretatzeko.

Hori hala bada, garrantzia areagotu egiten da gurea bezalako herri batean; nortasun gurutzatadun herri batean, alegia. Ez soilik nazio bakoitzeko nazionalitateen nortasunei eragiten dietelako; baizik eta probintzien eta herrien nortasunetik, oraindik ere, garrantzia dutelako –sortzen ari den identitate europarrak gain–. Horregatik, identitate multzo horietako edozeinen sorrera alde bateko ikuspegitik dekretuz bultzatu nahi baldin bada, horrek nahitaez dakar eztabaida politikoa.

Hori kontuan izanik, zera uste dut: halako egoeretan askatasunaren kontzeptua izan behar da irizpidea. Batetik, irakaslearen askatasuna dago –katedra askatasuna izenez ezagutzen duguna Konstituzioak arautzen du 20. artikuluan–. Irakasleek lanbiderako duten gaitasuna erakusten dute lehiaketa publikoetan. Hortik aurrera, ez du zentzurik irakasle bati esateak zer esan behar dien ikasleei Historiari buruz. Bestetik, ikaslearen askatasuna ere badago. Horregatik Historiaren irakaskuntzak ariketa kritiko etengabea behar du izan, eta ez, ordea, tresna bat ideia bakarreko pertsonak garatzeko. Euskal Herriko eremua, Espainiakoa eta Europakoa banatzen baditugu, parekoak dira esanahi historikoari dagokionean. Hori dela-eta, era arrazional bakarria dago bakoitzaren sorrera historikoa azaltzeko: kritika. Eremu nazional baten Historia goraiatzeko duten jarrera nazionalistak oro (Espainiakoa, Euskal Herrikoa zein Europakoa) teknikoki okerrak izateaz gain, herritarren ahalmen kritikoa murriztu egiten du: herritarrek aukeratzeko eta interpretatzeko duen eskubidearen aurka doa.

Berez, zera aholkatuko nieke ministerioko eta autonomietako agintariari: ez arduratzeko hainbeste historiako irakasgaiak zeharo arautzearekin, horrek hanka sartze itzelak egitera eramango gaituelako. Gerta daitezkeen gehiegikeriak zuzentzeko (gertatu dira eta gertatzen dira, baita testuetan ere), bada nahikoa arau eta Zigor kode bat. Hobe dute pentsatzea lehiaketa publikoaren bitartez kontratatutako irakasleak unean dauden irakaslerik onenak direla, eta uztea euren lana askatasunez egiten, zeren eta historiaren eginkizuna ez baita iritzi bakarria sortzea, baizik eta kritikatzeko gaitasuna sustatzea.

## Joseba Agirreazkuenaga EHUko Garaiko Historiako katedraduna



1997tik hona, Historiaren eta bere irakaskuntzaren inguruko eztabaida areagotu egin da Espainian, eta Euskal Herrian ere ondorioak izan ditu. Edozeinek egin du iraganari buruzko hausnarketa, baina gogoeta hori egungo kezke eta ardurez egiten dugu, halaberharrez. Bereizi behar ditugu Historiaren arloan eta beste arloetan iraganari eta egungo Historiari buruz sortzen diren kontakizunak. Gainera ikasleek zein beste pertsonak bestelako metakontakizunak bereganatzen ditu eskolatik kanpo. Gaur egungo ikasketa planen barruan, batxilergoko ikasle guztiek Espainia eta Euskal Herriko historia garaikoaren edukiak landu behar dituzte, 200 urteotako historia, alegia.

Historia ezagutzeak arauak ditu. Iraganari buruz dugun ikuspegi kaotikoa, nolabait, ulergarri bihurtzean datza historiaren zeregin nagusia. Batetik, ikasleek gertakizunak ezagutu behar dituzte; eta, bestetik, azterketa zehatzak eta ulergarriak egiteko gaitasuna lortu. Gertakizunen zergatiak ulertzeko gai izan behar dute, interpretatzeko gai. Bestalde, orain arte, Espainiako historia bat eta bakarra irakasten zen: subjektua bakarra zen; orain, berriz, gutxienez bi subjektu historiografiko kolektibo nagusi ditugu onarturik gure legedian: Espainia eta Euskal Herria. Denboran barrena, bertako biztanleak hainbat ekintzatan eta arazotan modu komunean aritu izan dira. Besteetan, Espainian sortu den Estatua baterakoia eta aniztasunaren suntsizailea izan da; eta ez da onartu izan bestearen nortasuna. Tirabirak eta gatazkak egon dira, baina zergatiak ulertzeko era ugari dago. Beraz, ikasgelan irakasleek eta ikasleek jakin behar dute diskurtso historikoak ugariak direla; eta historian garrantzitsua dela jakitea non dagoen koska, non aukeraketa, non informazioaren hierarkiazioa, non nortasun indibiduala eta taldekoa. Pertsonen eta euren taldeen ibilbidea beti da konplexua, eta sinplekeriaren bidez ezin dira gatazkak ulertu, ezta elkarrekin bizitzeko aukerak ere. Azken batean, historia premiazko tresna da edukien baloreen bilakaera ezagutzeko, eta baita giza eta herri eskubideak nola sortzen diren aztertzeko ere. Ariketa honetan trebatzea litzateke, nire ustez, helbururik garrantzitsuena.



## Roman Felones Geografia eta Historiako katedraduna eta Historiako irakaslea Lizarrako DBH institutuan

Historiaren irakaskuntza dela-eta Espainian sortu den eztabaida komunikabideetan jarraitu dutenek segur aski pentsatuko dute eztabaida nahaspilatsua izan dela. Auzi honetan, dokumentaziorik ez dutenek gustura jardun dute, eta ikasleak politikarien, editorialen eta irakasleen esku egon dira. Nik ez dut berdin pentsatzen. Araudia eztabaidagarria da, jakina; egoera hobetu daiteke, noski; gehiegikeriak egiten dira, dudarik ez dago; baina ez dago arrazoirik pentsatzeko iragana beti hobea dela oraina baino.

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan helburu hau du Historia irakasteak: “espazioari eta denborari dagozkien ezagutzak bereganatzea, gune hurbilenetik hasi eta urrutiko gunetaraino (herria, Erkidegoa, Espainia, Europako Batasuna, Nazioarteko Erkidegoa)” Zein da Espainiako Historiaren eginkizuna horretan? Bada,

curriculumaren barruan dagoen bitartean, irakasle bakoitzak nahi duena. Izan ere, helburua da ikasleek garai guztien oinarrizko ezagutza bat izatea ikasketak bukatzerako; beraz, egoera ez da azaltzen duten bezain ahula, ezta programazioa hain burugabea ere. Historia irakasterakoan DBHn sortzen den zailtasunik handiena honako hau da: espazio eta denbora zabalak batzen dituen programazio orekatu bat egokitzea. Eztabaidaren pizgarri, eta erabakiak hartzeko orduan norberaren esperientzia gehitu nahian, hona hemen oinarrizko iradokizun batzuk:

- Finkatu DBHko ikasleak lortu beharreko gutxieneko helburuak; hala, Nafarroak, bere orokortasunean, erreferentzia puntu bat izan dezan.
- Zehaztu ikasleak ikasi beharreko Espainiako historiaren oinarrizko edukiak. Erkidego orok Espainiako historiaren nukleo bat izatea hain da beharrezkoa herria eraikitzeko, ezen harrigarria baita nola ez den horrelakorik planteatu.
- Denbora behar da. Ezinezkoa da herri, nazio eta Europako esparruak jorratzea, astean hiru ordu izanda. Edo edukikopurua murrizten da, edo astean ordu bete gehiago erabiltzen ikasketa horietarako.
- Orekatu Historiako garaien ikasketa. Batxilergoak Garaiko Historiari ematen badio garrantzia, ez du zentzurik DBHk ere horri ematea lehentasuna. Akaso, irizpide orekatua litzateke hau: kurtso bat Aintzinatea eta Erdi Aroa jorratzeko, eta beste bat garai Moderno eta Garaikiderako.

Orain arte aztertutakoa Espainiako historiari dagokiona da. Atalik berriena jorratzea falta da: hezkuntza curriculum berria, hau da, Nafarroako historiaren edukiak. Hurrengo batean beharko du horrek.

**Jakes Goikoetxea**  
Kazetaria

# IKASTEKO LAN-METODOA

Gaur egungo gizartea informazioaren eta aldaketaren gizartea da. Internet eta komunikazio-sare berriei esker, munduko txokorik txokoenean gertatutako zerbait aldi berean jakin daiteke mundu osoan zehar; horren ondorioz, premiazkoa egiten zaigu informazioa jasotzen, prozesatzen eta erabiltzen ikastea. Gizartearen garapen teknologikoa aurrera doa, eta, beraz, lanbide guztiek aldaketak izango dituzte etengabe. Zer ekarriko du horrek? Bada, alde batetik, lanbidea maizago aldatzea, eta, bestetik, langileen etengabeko prestakuntza ziurtatzeko beharra.

Kasu bietan ikasteknikak ditugu lagungarri. Baina zer dira ikasteknikak? Eta garrantzitsuena... zer ez dira? Ez dira “mirari bat”, hau da, ez dira liburu batean irakurtzen diren aholkuak edo ikastaro batean irakasten dituzten lan-metodoa eta listo. Ikasteknikak, ordea, baldintza eta ariketa batzuk dira, alegia, norberak barneratu eta bere erara moldatu behar dituenak, lan-ohitura bihurtu arte.

Ez dago ikasteko modu bakarra. Ikasle bakoitzak bere metodoa sortzen du, eta horretarako, bere ezaugarriak ondo aztertu behar ditu eta lortu nahi duen helburua argitu; hori guztiori ikasteknikai buruz egindako ikerketen ondorioz zabaldu diren edukiak kontuan izanik.

Ikaslearen ezaugarriak aipatu ditugu, eta horien barruan honako hauek azter ditzakegu, besteak beste: adina, autoestimua, motibazioa, ikasteko eta irakurtzeko ohitura, norberaren biorritmoak...

## IKASTEN IKASTEKO BALDINTZA BATZUK

- ✓ Toki eta ordu berean ikastea komeni da.
- ✓ Zaindu gorputzaren jarrera: ikasi beti mahai eta aulki eroso eta egokietan.
- ✓ Ikasi zaratarik eta musikarik gabe, horiek kontzentziorako oztopo besterik ez baitira.
- ✓ Aukeratu toki argitsua eta tenperatura epela.

## LAN METODO AKTIBO BATEN BILA

Lehenengo eta behin, **gainbegiratu bat egin gaiari**. Irakurketa honetan bi gauza zehaztu behar dituzu: gaiaren nondik-norakoak eta bere egitura. Horrekin batera, identifikatu egin behar dituzu bai izenburua bai gaiaren atalak. Horretarako, seinale edota hitz batzuk jar daitezke testuan.

Gainetik irakurri ondoren, **testua sakon irakurriko dugu**, agertzen diren kontzeptuek eta datuek jabetzeko. Uler-tzen ez dena argitzeko, testuinguruaz baliatuko gara, edo, hala behar izanez gero, hiztegiara joko dugu, testu osoa ondo ulertu arte.

Hirugarren irakurraldian, **kontzeptu, datu eta gertaera** garrantzitsuenak eta esanguratsuenak **azpimarratuko ditugu**. Kontuan izan azpimarratzeak laguntza ederra emango digula atentzioa emateko orduan, eta baliagarria izango dela ikaste prozesua indartzeko, memorizazioa errazteko eta azken orduko errepasso azkar bat egiteko.

**Egin ezazu eskema bat**. Azken batean, eskema azpimarraketaren ondorioa baino ez da; hau da, testuak dituen ideia nagusienak hitz gutxitan eta ordenaturik emanda. Eskema-mota asko dago: giltzaduna, koadro sinoptikoa, mapa kon-

tzeptualak... Horietatik errazena eta erabilgarriena giltzadun eskema duzu. Horretan, bada, testuaren edukiak mailaz maila kokatzen dira (izenburua, ideia nagusiak eta xehetasunak), gezien eta giltzen bidez, ezkerretik eskuinera eta goitik behera. Aurrekoan esan dugun bezala, ikasteko prozesua indartzeko balio du eskemak, eta baita memoriari eta azken orduko errepassoari laguntzeko ere.

**Ez ahaztu laburpena egitea**. Eskeman agertzen diren ideiak jaso behar dira laburpenean, nor bere hitzak erabilia eta, izenak dioenez, modu laburrean. Laburpena oso mesedegarria da errepassoak egiterakoan eta eutoebaluaketari ekiteko orduan (testua begiratu gabe egiten bada, jakina).

## ERREPASOAK

Metodo aktiboaren bidez ikasi den informazioa ez galtzeko, noizean behin erre-pasatzea behar-beharrezkoa da. Beraz, sarri irakurri behar dira gaiak gogoan edukitzeko. Errepassoa dela-eta kontuan har daitezkeen irizpideak hauek dira:

- ✓ Testu bat ikasi eta handik hogeitalau ordutara galtzen dugu informazio gehiena. Komeni zaigu,

hortaz, denbora hori igaro ostean lehenengo errepasso bat egitea.

- ✓ Aste bete barru, bigarren errepassoa.
- ✓ Hamabost egun beranduago, hirugarren errepasso etab. Hemen jaso ditugun orientabideek zerbaitetarako balio duten ala ez frogatu nahi baduzu, ANIMA ZAITEZ! Merezi du eta.



**M<sup>a</sup> Paz Martinez Fdez. De Larrinoa**  
Euskal Herriko CEI/IDC Orientazio Programaren arduraduna

# Euskarazko zenbait baliabide Interneten

Azken urte hauetan Internetek izan duen onarpen zabalaren eta azkarraren ondorioz, gizabanakoen eta erakundeen arteko komunikazioa areagotu eta merkeagotu egin da, kokapen geografikoarekin inolako zerikusirik izan gabe gainera. Era honetan, herritarrek sare itzel hau erabil dezakete, informazioa bilatzeko eta mota guztietako erakundeekin elkarreragiteko.

Teknologia honek pertsonen arteko komunikazioa eta elkar-tzeko era berriak sortzeko balio izan du, orain arte horretarako erabili izan diren espazioetatik kanpo. Ingurumari honetan, Euskal Herriko administrazio publikoetan lan egiten dutenek hainbat baliabide aurki ditzakete Interneten lana euskaraz egin ahal izateko. Baliabide hauek momentuz gutxi badira ere, egunetik egunera geroz eta gehiago topa ditzakegu han eta hemen sakabanatuta, ekimen pribatu zein publikoer esker.

Ondoko lerrootan tresna hauen bilduma laburra erakutsi nahi dizuegu.

## ERAKUNDE PUBLIKOAK

Bai Eusko Jaurlaritzak ([www.euskadi.net](http://www.euskadi.net)), bai Nafarroako Gobernuak ([www.cfnavarra.es](http://www.cfnavarra.es)) eskaintzen duten informazio-kopurua garrantzitsua da. Horietaz aparte, Arabako ([www.alava.net](http://www.alava.net)), Bizkaiko ([www.bizkaia.net](http://www.bizkaia.net)) eta Gipuzkoa-ko ([www.gipuzkoa.net](http://www.gipuzkoa.net)) foru aldundiak dauzkagu. Eusko Jaurlaritzaren asmoen artean, herritarrekiko harremanak bideratzeko webgune berria dago ([www.ej-gv.es](http://www.ej-gv.es)), momentuz lan-eskaintza publikoaren informazioaz hornituta. Webgune hauetan, baliabide onak daude administrazioan lan egiteko, besteak beste, erakunde bakoitzeko aldizkari ofizialak. Erakundeen artean ezin ahaztu Eusko Legebiltzarra ([parlamento.euskadi.net](http://parlamento.euskadi.net)).

## UDALAK

Udal gehienek ere euren webguneak jarri zituzten martxan aspaldian, eta hiriburuetakoak hauek dira: Bilbo ([www.bilbao.net](http://www.bilbao.net)), Donostia ([www.donsnsn.es](http://www.donsnsn.es)), Gasteiz ([www.vitoria-gasteiz.org](http://www.vitoria-gasteiz.org)) eta Iruña ([www.pamplona.net](http://www.pamplona.net)).

## HEZKUNTZA

Hezkuntza-arloan helbide asko aurki daitezke: ikastolen elkarteak ([www.ikastola.net](http://www.ikastola.net)), HABE ([www.habe.org](http://www.habe.org)), Udako Euskal Unibertsitatea ([www.ueu.org](http://www.ueu.org)), Euskal Herriko Unibertsitatea ([www.ehu.es/euskera/paginas/prin\\_e.htm](http://www.ehu.es/euskera/paginas/prin_e.htm)), Deustukoa ([www.deusto.es/homee.asp](http://www.deusto.es/homee.asp)), Nafarroako Unibertsitate Publikoa ([www.unavarra.es/euskara/index.htm](http://www.unavarra.es/euskara/index.htm)), Mondragon Unibertsitatea ([www.muni.es](http://www.muni.es)) eta abar. Aipagarria benetan, Santurtziko udal eskaltegiak sortu duen webgunea ([www.santurtzies.com](http://www.santurtzies.com)), euskara ikasi eta irakasteko baliabideez osatuta.

## SOFTWAREA

Softwareari buruz, Microsoft-ek Interneten zehar nabigatzeko programa (Internet Explorer 5.0) euskaraz eskaintzen du hemen: [www.microsoft.com/msdownload/iebuild/ie5\\_win32/eu/ie5\\_win32.htm](http://www.microsoft.com/msdownload/iebuild/ie5_win32/eu/ie5_win32.htm). Honetaz gain, Xuxen 2.1 (euskarazko zuzentzaile ortografikoa) programa ere oso baliagarria izan daiteke ([www.euskadi.net/euskara\\_hizt/indice\\_e.htm](http://www.euskadi.net/euskara_hizt/indice_e.htm)).

## HIZKUNTZA

Hizkuntzari berari dagokionez, bi gune hauek azpimarra daitezke: Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikako Sailordetzarena (euskararen historia, bilakaera soziolinguistikoa, araubide juridikoa...), [www.euskadi.net/euskara](http://www.euskadi.net/euskara), eta Euskaltzaindiarena, [www.euskaltzaindia.net](http://www.euskaltzaindia.net) (euskal deituren izendegia, hizkuntzaren arauak...).

## TERMINOLOGIA

Terminologiari buruz, webgune dexente eta interesgarriak topa daitezke. Euskalterm terminologi bankua ([www.uzei.com/eu/paseaeu.htm](http://www.uzei.com/eu/paseaeu.htm)), Elhuyar hiztegia ([www1.euskadi.net/hizt\\_el/indice\\_e.asp](http://www1.euskadi.net/hizt_el/indice_e.asp)), Hiztegia 3000 ([www1.euskadi.net/hizt\\_3000/indice\\_e.htm](http://www1.euskadi.net/hizt_3000/indice_e.htm)), Logos itzulpen-ataria ([www.logos.it/lang/transl\\_eu.html](http://www.logos.it/lang/transl_eu.html)), Euskal Itzultzaile, Zuzentzaile eta Interpreteen elkarteak ([www.eizie.org](http://www.eizie.org)), eta bertan, besteak beste, Senez aldizkaria ([www.eizie.org/euskara/argital/argital.htm](http://www.eizie.org/euskara/argital/argital.htm)), eta ItzuL, euskal itzultzaileen posta-zerrenda ([www.eizie.org/euskara/tresnak/itzul.htm](http://www.eizie.org/euskara/tresnak/itzul.htm)). Ezin alde batera utzi HAEEko Itzulpen Zerbitzu Ofiziala ([www.ivap.org/eusk/izo/karatula.htm](http://www.ivap.org/eusk/izo/karatula.htm)), hemen jasotako herrien eta kaleen euskarazko ordainak ([www.ivap.org/eusk/izo/topokale/udalkale.htm](http://www.ivap.org/eusk/izo/topokale/udalkale.htm)), edo HAEEko Adminiklopedia ([www.ivap.org/eusk/entziklo/entziklo.htm](http://www.ivap.org/eusk/entziklo/entziklo.htm)) eta Duda-Muda kontsultaz-zerbitzua ([www.ivap.org/eusk/dudamuda/dudamuda.htm](http://www.ivap.org/eusk/dudamuda/dudamuda.htm)).

## KOMUNIKABIDEAK

Euskara hutsezko komunikabideen artean, Argia ([www.argia.com](http://www.argia.com)), Euskaldunon Egunkaria ([www.egunkaria.com](http://www.egunkaria.com)), EITB ([www.eitb.com](http://www.eitb.com)), Zabalik ([www.diariovasco.com/zabalik/](http://www.diariovasco.com/zabalik/)) eta Bazka leudeke ([www.susa-literatura.com/cgi-bin/liburuak.pl?lib=bazk02](http://www.susa-literatura.com/cgi-bin/liburuak.pl?lib=bazk02)).

Badago zenbait aldizkari eta buletin elektronikotarako harpidetza egiteko aukera ere: @Euskadi online ([euskadi.kaixo.com](http://euskadi.kaixo.com)), Euskonews&Media ([www.euskonews.com](http://www.euskonews.com)), Euskararen berripapera ([www.euskadi.net/euskara\\_berripapera/indeus.pdf](http://www.euskadi.net/euskara_berripapera/indeus.pdf)), Euskal kulturaren hari@ ([www.argia.com/haria/htdocs/hariaegun.htm](http://www.argia.com/haria/htdocs/hariaegun.htm)), EuskaraZ posta-zerrenda ([www.ueu.org/euskaraz.htm](http://www.ueu.org/euskaraz.htm)) eta irakurtzen ari zaren aldizkaria ere bai ([www.ivap.org/eusk/admeusk/admeusk.htm](http://www.ivap.org/eusk/admeusk/admeusk.htm)).

Eta hauetaz aparte, bestelako esteka interesgarri hauek bisita bat baino gehiago merezi dute dudarik gabe: Jalgi ([www.jalgi.com](http://www.jalgi.com)), Eustat ([www.eustat.es](http://www.eustat.es)), Elhuyar ([www.elhuyar.com](http://www.elhuyar.com)), UZEI ([www.uzei.org](http://www.uzei.org)), ([www.eibar.org](http://www.eibar.org)), ([www.euskara.org](http://www.euskara.org)), Buber euskaltzalearen webgune txukuna ([students.washington.edu/buber/Basque/](http://students.washington.edu/buber/Basque/)), eta ezinbestekoak diren Kaixo ([www.kaixo.com](http://www.kaixo.com)) eta Aurki ([www.aurki.com](http://www.aurki.com)) bilatzaile lagungarriak.

**Luis Elizondo**  
**HAEEko teknikaria**  
 luis-elizondo@ivap.es



**Estrategiak bigarren hizkuntza baten irakaskuntzan**

Cyr, P.  
HABE  
Donostia, 2000  
156 or.


Itzulpen saileko liburu honek bigarren hizkuntza bat irakasterakoan erabil daitezkeen estrategiak aurkezten dizkigu. Gurean garrantzi handia du kontu horrek, eta beraz, lan hau interesgarria izan daiteke arlo horretan ari direnentzat. Lehen teoriak kaleratu zirenetik estrategiak aldatu egin dira, gizartea bera aldatu den bezala, eta azken batean, irakasle bakoitzak aukeratu beharko du estrategiarik egokiena, ikasleak eta horien inguruko errealitatea kontuan izanda.



**La dignidad e igualdad de las lenguas. Crítica de la discriminación lingüística.**

Moreno, J.C.  
Alianza Editorial  
Madrid, 2000  
316 or.

Izenburua irakurrita asma dezakegu egileak defendatuko duen tesia. Izan ere, eta berak dioen bezala, oraindik uste zabala eta errotua da hizkuntza batzuk beste batzuk baino hobekak direla, hizkuntza batzuek ez dutela zenbait gauzatarako balio etab. Are gehiago, uste hori edo aurreritzi horiek jende arruntaren artean ez ezik hizkuntz ikertzaileen artean ere ohikoak direla uste du autoreak, nahiz eta sarritan, azterketa neutro eta objektibo itxurako ikerketak izan. Horiek azalratzea eta kritikatzeko da liburuaren helburua, eta horrekin batera, hizkuntzak berez berdinak direla frogatzea, hau da, aniztasunaren azpian oinarri berdinak dituztela erakustea.



**Jornades sobre la Llei de Política Lingüística**

Generalitat de Catalunya. Institut d'Estudis Autònoms  
Barcelona, 1999  
376 or.

*Quaderns de Treball* saileko 49. zenbaki honek Katalanaren Normalkuntzarako Legea du aztergai. Jardunaldietan, hainbat adituk jorratu zituzten arlo hauek: hizkuntz eskubideak eta betebeharrak Konstituzioan eta Estatutuan; hezkuntzako hizkuntza; hizkuntza administrazioan; hizkuntza justizian, erregistroetan eta notariotzan; eta hizkuntza komunikabideetan eta arlo sozioekonomikoan. Katalanak zertan ari diren jakiteko lan erabilgarria, izan ere, maiz izaten ditugu bidegile horrelako kontuetan.



**Eleria, Euskal Herriko Legelarien Aldizkaria**

Eusko Ikaskuntza  
Donostia, 2000  
196 or.

*Eleriako* 5. zenbaki honetan *Euskararen Normalkuntza Legearen XVII. urteurrena* mintegiko hitzaldi eta txostenak jasotzen dira. Euskararen Normalkuntza Legeari osorik eskainitako zenbaki honetan hainbat eremu izan dituzte aztergai: hezkuntza sistema, administrazioa, komunikabideak, justizia, etorkizuneko ildoak, ikuspegi konparatua, hizkuntza normalkuntzaren isla ekonomian, eta legearen sorrera. Edukia interesgarria baldin bada, ez da gutxiago bukaran dakarren bibliografia, gaika antolatuta: araudia, jurisprudentzia, euskara, Espainiako hizkuntzak, Europakoak, Kanadako egoera, beste zenbait lekutakoa, hizkuntza eskubideak, eta euskarazko tokian-tokiko komunikabideak. Benetan baliagarria *Eleriako* monografiko hau.



**Antropología lingüística**

Duranti, A.  
Cambridge University Press  
Madrid, 2000  
525 or.

Hizkuntz antropologiarentzat gizakiak sortutako gauzak dira hizkuntzak, herrien bizitzaren sintoma eta zati direnak, eta era berean, munduaren berri emateko eta mundua irudikatzen direnak. Hizkuntz antropologia arlo ezezaguna izanik, liburuak gaiak modu orokorrean eta ulergarrian jabetzeko aukera eskaintzen du, beti ere, esparru horretako aditu baten eskutik. Hala ere, ez du ikuspegi itxirik jasotzen, aitzitik, eztabaida eta hausnarketarako bide izan nahi du.



**Guía para escribir y hablar correctamente en español**


Buitrago, A; Torijano, A.  
Espasa Calpe, S.A.  
Madrid, 2000  
252 or.

Aurreko zenbakietan ere eman dizuegu horrelako eskuliburu berri. Gero eta gehiago dira horrelako lanak merkaturatu, nonbait, gero eta gehiago baitira hizkuntzaren erabilera okerraz konturatuta, oker horiek zuzentzeko proposamenak egiten dituzten egileak. Liburu honetan ere horrelako eskuliburuetan jasotzen diren gomendioak aurkituko dituzue: ortografia, puntuazioa, azentoa, gramatika, aditza, hitz batzuen erabilera okerra...



# A b a r a s k a

Erantzun guztiak sei letrakoak dira eta zenbakienguztuen kokatu behar dira. Erantzun bakoitzaren lehen letra zenbakiaren gainean doa beti. Gogoan hartu hitzak ordu orratzen arabera bideratu behar direla.



LUMA

1. Nik nuke, haiek... 2. Losentxa. 3. Zuhaitz-mota. 4. Ahaleginak egin. 5. Heldua. 6. Akats egin. 7. Denborak. 8. Ilunabar. 9. Eraila. 10. Tenperatura altuko lurrin-bainuak. 11. Saindua. 12. Bizitasunik gabea. 13. Danbor-mota. 14. Izadia. 15. Karta-jokoa. 16. Uso arra.

# H i e r o g l i f i k o a



LUMA

Nor etorri da?

## Euskararen inguruko zenbait telefono

- AEK: 94/424 17 10
- Argia: 943/37 15 45
- EIZIE: 943/27 71 11
- Euskal Herriaren Euskaraz: 943/ 44 56 65
- Euskal Irrati Telebista (EITB): 94/ 603 10 00
- Euskal Kulturaren Erakundea: 00-335-59 93 25 25
- Euskaldunon Egunkaria: 943/30 02 22
- Euskaltzaindia: 94/415 81 55
- HABE: 943/02 26 00
- Helduen Euskalduntzerako Euskaltegia (HEI): 948/17 76 70-54
- Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea (IVAP): 945/01 76 00
- Hizkuntza Politikarako Sailordea: 945/01 81 10
- Ikas eta Ari (IKA): 945/28 89 22-44
- IRALE: 945/27 44 00
- Itzulpen Zerbitzu Ofiziala (IZO): 945/01 76 56. FAX: 945/01 76 03
- Kultura Saila: 945/01 94 64
- Nafarroako Hizkuntz Politikarako Zuzendaritza Nagusia: 948/10 71 83
- Udal Euskaltegiak: 94/440 62 17 943/80 52 54
- UZEI: 943/47 33 77

## S o l u z i o a k

(AMA IA)  
 AMAIA  
 ERANTZUNA:  
**H i e r o g l i f i k o a**

1. Linkete. 2. Balaku. 3. Makala. 4. Satatu. 5. Eustia. 6. Akastu. 7. Astak. 8. Arrats. 9. Akatua. 10. Sannak. 11. Sannua. 12. Ilanua. 13. Atabal. 14. Natura. 15. Tarta. 16. Usarra.

**A b a r a s k a**

**Tokia:** Deustuko Unibertsitatea. Deustu, Bilbo

**Eguna:** 2000ko azaroak 14 eta 15

**Antolatzaileak:**

Eusko Legebiltzarra  
Euskal Gaien Institutua (Deustuko Unibertsitatea)

**Jorratuko den arloa:** Zuzenbide konparatuko esperientziak aztertuko dira (besteak beste Euskal Herria, Belgika, Kanada...) legeak idazterakoan elebitasunak sortzen dituen arazoak eta arazooi eman zaizkien konponbideak ezagutarazteko eta horietaz hausnartzeko.

**Informazio gehiago:**

telf: 944 139 225 (Rosa)

Parte hartzea, doan

**Tokia:** EUSKALDUNA Jauregia  
BILBAO

**Eguna:** 2001eko apirilak 9,10 eta 11

**Jorratuko diren arloak:**

- *Euskararen historia (jatorri eta ahaidetasun kontuak barne)*
- *Hiztegi gintza*
- *Hizkuntz ereduak (estandarra eta aldaerak)*

**Laburpenak bidaltzeko azken epea:** 2000ko azaroaren 30a.

**Informazio gehiago:**

Euskaltzaindia  
Plaza Barria 15  
telf: 94-4158155  
Faxa: 94-4158144  
www.euskaltzaindia.net



## ANTTON KAIFER ARANA



Badira, egunero jazota ere, sentimenduan beti era berrian eragiten diguten gertaerak. Modu askotan eragin ere: leun, ezti, gozo, latz, gogor, izugarri. Horietakoa da lagunaren bat-bateko agurra. Eta oraingoan lagun batek, Antton Kaiferrek, agur egin digu bat-batean. "Sasoirik onenean" esaten da alde egindakoa gaztea denean. 47 urtekoa ere ez da, bada, sasoi txarra. Horiek zituen Anttonek.

Gurekin urteetan izan genuen Antton, Prestakuntza Zerbitzuko zuzendari aurrena, HAEEko idazkari nagusi gero. *Administrazioa Euskaraz* honetako zuzendaritza-batzordeko kide ere izan zen. Ikasketaz psikologoa eta pedagogo, karrera amaituta, hasiera batean Iruñan OPUSeko Unibertsitatean aritu zen, Salamancako Psikiatrikoan urtebetean, Altsasuko ikastolan, harik eta Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailean sartu zen arte. Han Pedagogia Berrikuntzan urteak eman eta HAEEra etorri zen. Azken urtean Bizkaiko Aldundian ziharduen Lurralde Ekintzako zuzendari.

Gorputz handikoa ez, baina bai, horrexegatik agian, ekinekia eta erabakiak hartzen azkarra eta, batera, zuhurra. Eskuan sarri zigarrotxoa, hitza patxada samarrean, ez zitzaion igartzen halako bizitasuna zuenik barruan. Beti zeri eutsiko, beti zer egingo, taldea martxan jartzen eta jardunean mantentzen egokia zen benetan, liderra, burua; hor dira, esaterako, 1998an antolatutako 800-eta (zortziehun-eta) ikastaroak.

Lanetik kanpo, denbora-pasarik atseginenetakoa itsasoa zuen. Arrantzakoa baino gehiago belako ontzitzoan ibiltzekoa zen. Plentzian bizi, eta aukera ezin hobe zuen horretarako, eta aprobetxatu egiten zuen. Aurtengo udan ere edertotxo ibili zela zioen, lasaitasunez blai geratu zela. Behintzat hori, latzak pasatakoa ere bazen-eta askok dakigunez.

Antton, hemen gaituk hire omenez, hunkigarria den zer edo zer, barrungoa, lagunartekoa eta esanguratsua den zerbaiten bila. Fededunek "ongi izan" esango dizute, eta guztiok "agur, lagun".

**HAEEko lagunak**